

13. KULTURA, KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

UPV/EHU Uda Ikastaroak 2022



Maiatzak 16 - 18

BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU

Baterako sorkuntza eta gizarte-berrikuntza, Garapen Irraunkorrean eta 2030 Agendako helburuetan aurrera egiteko



KCD GGKE

IFK: G95550943

Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12

CP 48902 - Barakaldo - Bizkaia

Kontaktua

Telefonoa: 94 602 46 68

E-mail: info@kcd-ongd.org

www.kcd-ongd.org

Edizioa: KCD ONGD

Diseinua: Binari Comunicación

Testua: Laura Latorre Hernando

AURKIBIDEA



4	EGITARAUA 2022
6	1. EGUNA
22	2. EGUNA
36	3. EGUNA

13. KULTURA, KOMUNIKAZIOA ETA GARAPENERAKO NAZIOARTEKO TOPAKETA

“Baterako sorkuntza eta gizarte-berrikuntza, Garapen Irraunkorrean eta 2030 Agendako helburuetan aurrera egiteko”

UPV/EHUko Uda Ikastaroak

Bilbo, 2022ko maiatzaren 16a, 17a eta 18a

E G I T A R A U A 2 0 2 2

> 16 MAIATZA

Topaketaren inaugurazioa agintariekin

Azkar joan nahi badugu, egin dezagun bidea bakarka; baina urrutira joateko, egin dezagun elkarrekin (Afrikako esaera zaharra)

“Baterako sorkuntza eta gizarte-berrikuntza, Garapen Irraunkorrean eta 2030 Agendako helburuetan aurrera egiteko”

J. CARLOS VÁZQUEZ VELASCO

“Gizarte- eta elkartasun-ekonomia: bizitzaren iraunkortasunerako ekarpenak eta jardunbideak”

CARLOS ASKUNZE ELIZAGA (Euskadi)

“Gizarte eraldatzailea eraikitzea gizarte-berrikuntzan eta ekintzaitzetan oinarrituta: diaspora, kulturartekotasuna eta askotariko aldaketa-eragileak”

**GEORGE BELINGA (Kamerun/Espainia), LANDER JIMÉNEZ (Espainia),
IRENE MILLEIRO (Espainia)**

“ComunicArte zineman”

MARILYN SOLAYA BORREGOS (Kuba)



> 17 MAIATZA

“Komunitate-bizipenak komunikazio eraldatzailean”

ANGEL ERNESTO HERNÁNDEZ BELTRÁN (El Salvador)

“Herri-komunikazioa El Salvadorreko gizarte- eta herri-mugimenduen zerbitzura”

ELSY YANIRA MEJÍA ORELLANA (El Salvador)

“Komunitate-komunikazioa Ojo de Agua Comunicación proiektuaren ikuspegitik: Ibilerak eta ikaskuntzak”

GUILLERMO MONTEFORTE (México)

“Biktimek SIVJNRN sisteman parte hartzea: bakea justiziarekin eta egiarekin eraikitzearen aldeko apustua”

SEBASTIÁN FELIPE ESCOBAR URIBE (Kolonbia)

“Behin-behineko hiri-esparrutik smart factory terminalera. Industria kultural eta sortzaile adimenduneko fabrika”

MANUEL JESÚS GÓMEZ-ÁLVAREZ BLANCO (Espainia)

> 18 MAIATZA

“Gizarte-berrikuntza, kultura- eta sorkuntza-proiektuak garatzeko ardatz. Habana hiriko Historialariaren Bulegoaren esperientzia”

MALENA ROCHE PARES (Cuba), **ARIAM LUIS MAYOR MAGDALENA** (Kuba)

“Partaidetzako komunitate-prozesuak abiaraztea eta enpresa sozialak sortzea, migrazioaren erronkei erantzuteko”

MAMADOU DIA (Senegal)

“Lanbide-heziketa lankidetzaren bidez”

MARKEL ANDIA RUIZ (Euskadi), **INHAR LOZANO UGARTE** (Euskadi)

Topaketan parte hartu dutenen ondorio, ikaskuntza eta erronkak - etorkizunari begira

“Baterako sorkuntza, Garapen Jasangarria eta Garapenerako Lankidetzak: aukerak eta erronkak”

J. CARLOS VÁZQUEZ VELASCO

Clownklusioak, Virginia Imaz pailasaren kargu

BATERA SORTZEN

1. EGUNA

1. TOPAKETAREN INAUGURAZIOA

Azkar joan nahi badugu, egin dezagun bidea bakarka; baina urrutira joateko, egin dezagun elkarrekin (Afrikako esaera zaharra).



Inaugurazio mahaia: Ainhoa Pérez Arróspide (KCD GGKE), Fernando San Martín (GFA), Itziar Urtasun (Bilboko Udala), Gorka Moreno (EHU), Paul Ortega (GLEA), Natxo Rodríguez (BFA)

BILBOKO UDALA: GJHetan aurrera egiteko faktore gisa, gizarte-berrikuntzak **jokabidez aldatzea eskatzen du, eta gizarte osoaren esku-hartzea**. Sareko lana ere aipatu da. Esan da, besteak beste, aitzindaria dela KCD lankidetzeta eta Gizartea Eraldatzeko Hezkuntza (GEH) «uztartzen».

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIA (GLEA): kultura-ren eta komunikazioaren GJHa «aldarrikatzea».

Munduko bizimodua hobetzeko ezagutza zientifikoak eta teknikoak eskura ditugu, baina, antza denez, ez horretarako behar diren gaitasun sozialak eta politikoak. **Funtsezkoa da gizarte-berrikuntza herritarren bizimodua hobetzeko eta mundua eraldatzeko**. Giza Eskubideen Aldarrikapena aipatu da gizarte-berrikuntzako adibide gisa. Berriagoen artean, berriz, 2030 Agenda.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA (BFA): **aniztasuna** abiapuntu dugula ekin behar diegu gizateriaren erronkei.

Politika gehiago —eta hobe— egin behar da. **Herritarren bizimodua hobetzeko, alor publikoaren esku-hartzea aldarrikatzen da** (ez da aski arazoak zuzentzea). Horretarako, funtsezkoa da arlo publikoaren jarduera.

Lankidetzaren eta elkartasunaren garrantzia erronka globalei aurre egiteko. Ezinbestekoak dira sareak eta aliantzak.

Tokian tokiko ekimenak eta globalak elkarrekin lotzeko balio du Gizartea Eraldatzeko Hezkuntzak (GEH), eta aldaketaren alde jardungo diren herritarrek behar ditu. EZ dute balio «sofan etzanda gaudela» egiten ditugun kritikek. **Fun-tsezkoak dira partaidetza eta ekintza.**

«Tradizionalak ez ziren» eragile berriak erakartzeko beharra nabarmendu da.

Elkarrekin lan egiteko eta errealitatea eraldatzeko aukera egokia izan daiteke krisia.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA (GFA): Aurreko lankidetzaren eredua kritikatu du, eta **eremu berriak —horizontalagoak— aldarrikatu. «Besteengandik» ikasi behar dugu, guk irakatsi eta lagundu behar geniola uste genuen haiengandik. Baterako sorkuntza dugu horretarako gakoetako bat.**

Zaintza, erronka berriak: egungo gizarteko zenbait aldaketa eta atzerako joera identifikatu ditu (lankidetzaren aurkako erasoak, gorroto-diskurtsoak...) eta horiei aurre egin behar diegula gogoratu. Denoi dagokigu ardurara hori: herritarroi, elkartei eta erakundeei.

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (EHU): GJHak aldarrikatu ditu. Kontua, baina, teoriatik praktikara aldatzea da, baita unibertsitatean ere.

Baterako sorkuntza eta berrikuntza: ezinbestekoa da erakundeen arteko lankidetzaren, non EHU ere funtsezko eragilea baita.

Bat egiten du EHUn goiburuekin: Eman ta zabal ezazu («Jakintza hartu eta zabaldu»).

KULTURA, COMMUNICATION DESARROLLO (KCD ONGD): erakundeek, elkarteek eta herritarrek helburu beraren bila jo behar dugula azaldu du.

Herritar ekintzaileak, sozialak aldarrikatu ditu. Izan ere, ekintzaile izatea ez da alor ekonomikora bakarrik mugatu behar. Aurrera egiteko, alor soziala ere beharrezkoa da. Gure xedea: ekintza onak egitea.

SENEGALEN MADRILGO ENBAXADA: orokorrak eta denonak dira arazoak, eta elkarrekin egin behar dugu lan gure lurraldeak garatzeko.

Konplexua da testuingurua, baina borondaterik baldin badago, eraldaketa eragin dezakegu.

Migrazioa garapen-faktore bat dela adierazi du, ez arazo bat. Garapen- eta hazkunde-faktorea izan behar duela.

Gazteak eta emakumezkoak dira Senegalgo herritar gehienak. Beharrezkoak ditugu emakumeak, beharrezkoa haien garapena, eta haiek xede dituzten politika publikoak bultzatu behar dira.

Hezkuntza da herritarren egoera hobetzeko tresna nagusietako bat.

Eraldaketa-ekintzetan emakumeek izan behar duten esku-hartzea aldarrikatu du.

Zenbait arazo eta desafio aipatu ditu: **jasangarritasuna, ekologia, elikagaien segurtasuna, herrialdearen industrializazioa** (edo haren eza), eta kultura gizarte-kohesiorako faktore gisa, batez ere gazteen artean. **Kulturak** izan behar du ardatz, gizartearen elkartasunari eusten dion motorra.

GANDIOLEKO ALKATETZA: topaketa honi eta antzeko ekimenei esker ikusten dugu bat garela denok, gizateria osoa. Euskadik Senegali ematen dion laguntza azpimarratu du, batez ere Gandiolekikoa (Hahatay proiektua).

Lankidetzeta eta **komunitate desberdinen arteko harremanak** goretsi ditu, eta elkarrekin lan egiten duten elkarteak eta erakundeak.

Herritarrentzako hazkunde sozial eta ekonomikorako aukerak behar dituzte herrialdeek. Helburua: bideak eskaintzea herritarrei euren komunitate propioetan hazi eta gara daitezen. Beste behin ere, funtsezkoak dira emakumeak. Hala, mi-gratu dutenei sorterrira itzultzeko interesa sor dakieke.

HABANA HIRIKO HISTORIALARIAREN BULEGOA (OHCH), KUBA: blokeoa gorabehera, gauza asko ari da egiten, eta estua da lankidetzeta.

Lan handia ari da egiten Habanan ondare kulturala berreskuratu eta herri-tarren garapena bultzatzeko: etxebizitzak, adinekoentzako egoitzak, gazte eta nerabeentzako guneak...

Etengabe jasotzen du lankidetzaren sostengua gizarte-proiektuak garatzeko.



Inaugurazio mahaia: J. Carlos Vázquez (KCD GGKE), Mamadou Dia (Hahatay, Senegal), Papa Fall (Gandioli alkatea, Senegal), Mariame Sy (Senegal enbaxadorea), Perla Rosa Rosales (OHCH, Kuba)

2. «BATERAKO SORKUNTZA ETA GIZARTE-BERRIKUNTZA, GARAPEN JASANGARRIAN ETA 2030 AGENDAKO HELBURUETAN AURRERA EGITEKO»

KCD ONGD HITZALDIA

(Juan Carlos Vázquez)

«Baterako sorkuntza eta gizarte-berrikuntza, Garapen Jasangarrian eta 2030 Agendako helburuetan aurrera egiteko»

Hondamendia besterik ez dakarte gerrek: gizaki asko hiltzen dute, ingurunea aldatzen, ondasun materialak suntsitzen, ondare materiala eta immateriala desagitzen... Hori egiten dute gerra guztiek, nonahi eta noiznahi. GERRARIK ez! Biziki salatzen ditugu gerrak eta haiek eragin ohi dituzten interes geostrategikoak. Gerraren ordeztu, kultura eta hezkuntza aldarrikatzen ditugu, elkarriketa eta bizikidetzat ahalbidetzen duten balioak hedatzeko.

Baterako sorkuntza: beste norbaitekin batera sortzea, esperientzia indibidual bat kolektibo bihurtzeko behar den energia sortzailea askatzea. Elkarrekin zer-bait sortzeko prozesu bihurtzea zer bat.

Giza garapen bidezkoa eta jasangarria lortzeko, ezinbestekoak ditugu alianztzak; bakarka ezin da.

Hona EHUren Udako Ikastaroen barruan Kultura, Communication y Desarrollo KCD GGKEk antolatu duen topaketa honen helburua: **ezagutzak, esperientziak eta gaitasunak zabaltzea baterako sorkuntzan, gizarte-berrikuntzan, garapen jasangarrian, komunikazioan eta gizarte-eraldaketan diharduten** erakunde eta herritarren artean.

Topaketak ardatz tematiko hauek izango ditu: **komunikazioa, gizartea eraldatzeko tresna gisa; ekonomia sozial eta solidarioa, garapenaren eta ongizatearen alternatiba moduan**, eta parte-hartzea eta aliantzen sorrera, 2030 Agenda betetzeko aukera emango duten toki- nahiz mundu-mailako irtenbideak bilatzeko.

Horretarako, **garapenerako baterako sorkuntzaren alorreko hainbat esperientzia ezagutuko ditugu**, Kuban, Senegalen, Mexikon, El Salvadorren, Kolonbian eta Euskal Autonomia Erkidegoan abian jarri direnak.

Ez galdu guztion onerako konspirazio horretan parte hartzeko aukera!

Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinenaren Jaialdia nola sortu zen azaltzea erabaki du Kultura, Communication y Desarrollo KCD ONGDk, **esperientzia indibidual bat kolektibo nola bihurtzen** den ongi erakusten duela baiteritzo.



Jende askoren atxikimendua eskatzen dute tamaina horretako proiektuek, baliabide ekonomiko, politiko eta instituzional handiak. Beraz, errealitatea eraldatzeko baliabideak ez dira gastu gisa ikusi behar, inbertsio gisa baizik. **EAEko erakunde publikoetako zenbait alorretan izan behar lukete eragina lankidetzak eta jaialdiaren balioek, eta erakundeen arteko elkarlan-eremuak balioetsi.**

Ez galdu GUZTION ONERAKO KONSPIRAZIO HORRETAN parte hartzeko aukera!

2019ko irailaren 14an **inauguratu zen eta egin zen lehenbizikoz Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia.**

Kultura eta komunikazioa lankidetzarekin eta garapenarekin uztartzeko sortu zen GGKEa. Eta jaialdia zuen jarduera nagusia: konpromiso soziala aldarrikatzen duen askotariko zinemari eskaintzen zaion urteroko ekitaldia.

Esperientzia zabala genuen metatua, eta **argi zeuden gure helburuak**, indarguneak eta ahuleziak. Oso erakunde txikia ginenez, **azkar ibiltzeko eta krisi-garaian bizirik irauteko** aukera genuen, Afrikako esaera batek dioen legez: 2008an jaio ginen, **neoliberalismoak** eragindako **krisi** finantzario-produktibo globalaren erdian, baina **urruti iritsi nahi** genuenez, **hasieratik ekin** genion **aliantzak eraikitzeari**.

Baina, nola lan egin GGKE-en eremuan bertan zerraldo geratu gabe?

Teknizismoz eta burokraziaz beterik dago lankidetzaren mundua, eta dirulaguntza publikoen oso mendekoa da; bestalde, ez da erraza nazioarteko alorrean lan egitea.

Bistakoa zenez, **energia sortzailea berehala ekoitzi beharra zeukan** KCDk bere **kezkak plazaratzeko**; izan ere, **ideia indibidual bat esperientzia kolektibo bihurtu** behar zen, eta horretarako elkarriketa, behaketa eta informazioa ezinbestekoak ziren. **Jakina, aliantza ugariren beharra zegoen**: lankidetzan eta gizartea eraldatzeko hezkuntzan diharduten erakundeekin, zinema soziala egiten dutenekin; lanbide-heziketako, batxilergoko eta unibertsitateko ikastetxeekin, zenbait enpresa eta elkarterekin, Hegoalde Globalean lan egiten duten erakunde lagunekin eta norbanakoekin. **Horretarako, baina, baterako sorkuntza behar genuen.**

Hasteko, hor **geneukan tresna ideala**: Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia. Elementu askok osatzen dute jaialdia: erakargarria da, ikusgarria... Horri guztiari esker, jende eta organismo askoren atxikimendua beregana zezakeen. Bestalde, nortasuna, **irudia eta eduki edo ardatz tematiko** batzuk ere behar zituen Bilboko «Film Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko **Jaialdiak**, zer garen eta zer nahi dugun azaltzeko gizarteari. Hona zein diren ardatz horiek: **jasangarritasuna, genero-ekitatea, kulturartekotasuna eta giza eskubideak**. Gure **GGKE osoaren erdigunea** bihurtu zen Zinema Ikusezinaren Jaialdia.

Baina guztiz **ikusgarri bihurtu** beharra geneukan, **ikusle ugari eta askotari-koak gureganatzeko**. Horrez gain, **gizartea eraldatzearen aldeko komunika-zio-ekintza** bat egin nahi genuen **erdiguneko leku hain ezagun** batean. Horre-gatik egin genuen Jaialdia **Bilboko Alondegiko Azkuna Zentroan**.

Izan ere, **ikusleak erakartzeko gai zen bestelako zinema bat** eskaini nahi genuen. **Zinema konprometitua, informazioak batzuetan uzten dizkigun hutsuneak bete ditzakeena. Errealitatea hobeto ulertzen** eta publikoa bide horretatik jotzera bultzatzen duten **istorioak erakutsi** nahi genituen. Baina **publiko hori ere «sortu»** egin behar zenez, **zenbait eragileren lankidetz**a eska-tu genuen. Egun, **berrogei bat organismok** laguntzen diote Jaialdiari; besteak beste, **batxilergoko eta lanbide-heziketako 14 institutuk, eta EAEko unibersitate publikoak (EHU) eta pribatuak (Deustuko Unibertsitatea)**.

Lau publiko desberdinentzat programatzen da Jaialdia: 16 urtetik gorako gaz-teentzat eta unibertsitate-ikasleentzat, helduentzat eta heldu nagusientzat. Ba-tzuetan, bazterrera geratu ohi da azkena aipatu dugun publikoa. **Alor horretan ere bereziki erreparatu behar zaio baterako sorkuntzari, 14 institutuetako bakoitzak bere jaialdi propioa antolatzen baitu. Gizateriaren erronkekin eta kausekin bat egiten duen bertako eta nazioarteko zinemaren erreferentzia** da Jaialdia, **gizartearekiko ardura** duten era guztietako erakundeak eta herrita-rrak biltzen dituen gunea.

Hasieratik ahalegindu da parekotasun-kuotak lortzen, berdintasunaren aldeko ekintza positiboak sustatuz, eta emaitza onak ekarri ditu jokabide ho-rrek lanen hautaketan eta haien hedapenean, emakume zinegileen kopuruan, epaimahaiko kideen aukeraketan... Aitzindaria izan da, bestalde, beste alor ba-tzuetan; esate baterako, **hautzaindegi-zerbitzua eskaintzen die zinegileei eta zaintzaileei, edozein generotakoak direla ere. Frogatu dugu, bestalde, emaitza bikainak lortzen direla herritar guztien gizarteratze berdinzalea sustatzeko ekintza positiboak aplikatzen badira**, bereizketarik egin gabe sexua, genero-identitatea, etnia, erlijioa eta abar direla eta.

Urtean **mila bat film** jasotzen ditu Jaialdiak, hots, **milaka lagun aritzen dira ba-terako sorkuntzan, komunikazioa baliatuz garapenerako tresna gisa. Zine-ma ikusezin konprometitua egiten duten gizon eta emakume horiek guztiak aintzatesteko gunea ere bada Jaialdia**.

Egun, **25 herri eta hiritako pantailatan jartzen dira ikusgai Jaialdiko filmak. Azkeneko ekitaldian, 81 film hautatu eta 588 proiektzio** egin ziren; **ikusle-ko-purua**, berriz, **11.000** ingurukoa izan zen. **Ikusle horietatik, 8.000 baino gehiago lanbide-heziketako eta batxilergoko ikasleak (eta irakasleak)** ziren.

2015etik, **jaialdiak eutsi** egin dio Nazio Batuek proposatutako **Garapen Jasan-garrirako Helburuak (GJHak)** nabarmendu eta betetzeko konpromisoari. Zen-bait **gizarte-eragilerentzat elkargune bikaina izan daitezke GJHak, baina zortzi urte bakarrik geratzen dira 2030 Agenda ixteko. Aurreko Milurteko Garapen Helburuek (MGH) gobernuen ikuspegia bakarrik hartu zuten aintzat, eta alde**

batera utzi zituzten gizarte-eragileak; besteak beste, enpresak eta gizarte zibila. **MGHeK ez zituzten lortu beren helburuak.**

Urte osoan lana ematen duen jarduera oso konplexua da Jaialdia; hala eta guztiz ere, **gizartea eraldatzearen aldeko hezkuntza- eta komunikazio-ekintza gehiago ere egiten ditugu.**

1. **Kulturari, Komunikazioari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Topaketa.**
2. **Emakumeek egindako Zinemaren 11. Karabana** («Zinemagileen artean»).
3. **Telefono mugikorrez egindako gazteentzako zinema sozialeko lantegiak** («IKASLEEN KLAKETA»).
4. **Emakumeentzako zinemari buruzko partaidetza-lantegia.**
5. **Interes sozialeko gaiei buruzko argitalpenak.**
6. **Zinema sozialeko KLIKATU ZINEMA IKUSEZINA streaming-plataforma.**
7. **Interes sozialeko gaiei buruzko erakusketak.**

Azkenik, aipatzekoak dira **nazioarteko lankidetzaren bidez egiten ditugun lanak** ere. Horiek aurrera eramateko, ezinbestekoa dugu Hegoalde globalean zenbait proiektu bultzatzen ari diren gure adiskideen laguntza.

3. EKONOMIA SOZIALA ETA SOLIDARIOA: BIZITZAREN JASANGARRITASUNERAKO EKARPENAK ETA JARDUNBIDEAK

REAS EUSKADIREN HITZALDIAK

(Carlos Askunze)



Ainhoa Pérez-Arróspide (KCD GGKE), Carlos Askunze (REAS Euskadi)

Ekonomia soziala eta solidarioa (ESSa) beti dago berrikuntzari lotua, aukera ematen baitu eragile desberdin, ugari eta askotarikoen arteko lankidetzaz sustatzeko. Baterako sorkuntzak, berriz, berekin dakar proiektuko esku-hartze kolektiboa, bai alor teorikoan, bai praktikoan.

ESSa, bestalde, GJHetara hurbiltzen da, haien jardunbide nagusiak eta mekanismoak erakutsiz.

2030 Agendara ere hurbilketa kritikoa egiten dute REASEk eta ESSk. Izan ere, porrot egin zuen aurreko agendak. Oraingoak, berriz, honetarako balio du, batez ere: herrialdeak atxikitzeko, gobernu-planak sortzeko eta neurri zehatzak aplikatzeko baino gehiago. Oso modu orokorrean aurkezten dira, eta «onkeria» kutsu nabarmena dute. **Agendak aurrera egin dezan, egitura-eraldaketa handiak behar dira;** izan ere, gero herrialdeek agintzen dituztenak baino eraginkorragoak behar dute izan aldaketek, gobernuak horretarako prest ez egon arren.

Baina **prozesu eraldatzaileak garatzeko aukera bat ere bada Agenda, baldin eta aurrerapenak neurtzen dituzten adierazleak sortzen badira.**

Agendei egiten zaien beste kritika bat honako hau da: oso ikuspegi «mende-baldarra» dutela, eta aniztasuna ez dutela aintzat hartzen. Zortzigarren GJHa (hazkunde ekonomikoa), adibidez, goitik behera berrikusi behar da, egiten den proposamena ez baita jasangarria eta, gainera, beste GJH batzuekiko gatazka eragin baitezake.

Alderdi positiboan artean, berriz, hau azpimarratu behar da: GJHei aukera ematen dute jada garatzen ari diren zenbait jarduera eraldatzaile ikusgai bihurtzeko. Besteak beste, jada martxan diren alternatiba batzuk erakusten eta balioesten dituzte.

Duela 50 urte argitaratu zen *Los límites del crecimiento* txostena (Hazkundearen mugak), baina ez zitzaion kasurik egin; **orain, berriz, berandu da jada garapen jasangarriarentzat. Prestatuta egon behar dugu kolpeei eusteko, eta sistema erresiliente txikiak eraiki.** Baieztapen hori ez da ikuspegi ezkor, etsikor eta desmobilizatzaile baten ondorioa, baizik eta errealtatearen azterketa errealista, eta ekintzarako deialdia.

Jasaten ditugun krisi ugarien sintoma baino ez da azken urteotako egoera. Kontua zera da, nola prestatzen garen kolapsorako.

Egungo ekonomiak ez du bizitza zaintzen: ez da jasangarria ingurumenarentzat, erasokorra da, antidemokratikoa, eta ez ditu zoriontsu egiten herritar gehienak.

Baina Lurreko bizitzak interdependenteak eta ekodependenteak dira. Beraz, ez du balio azken mendeotan nagusitu den proposamenak.

Bizitza zaintzen duen ekonomia aldarrikatzen du ESSak, zeina mugimendu ekofeministek elikatzen baitute gehienbat: gizaki guztion BEHARRAK ASE-TZEA, eta BIZITZAREN ERREPRODUKZIO-GAITASUNARI EUSTEA.





Estrategiak:

- Giza eskubideak eta eskubide ekonomikoak eta sozialak bermatzea, ongi-zate sozialeko sistemei eusteko gai diren sistemen bitartez. Horretarako, desberdintasunak murriztea da garrantzizkoena.
- Herritarren zaintzaren krisia. Ez dago sistemarik horretarako prestaturik, eta gizarte-antolakuntza berria behar dugu zaintza bermatzeko.
- Trantsizio ekologikoa eta soziala.
- Ekoizpen-sistema eraldatzea, eta honi ematea lehentasuna: arazoak konpontzeari eta denon ongiriari.
- Kate ekonomiko eta sozial jasangarriak eta tokian tokikoak sustatzea.
- ESSa garatzea. Dibertsitate handiagoa behar du sistema ekonomikoak.
- Kudeaketa eredu demokratikoagoa, eztabaida eta erantzunkidetasuna aintzat hartzen dituenak.

ESSAREN EKARPENAK

ESSa EZ da zer aringarri bat, alternatiba erkideak sortzea baitu helburu, baina EZ dauka konponbiderik arazo guztietarako; ez da, beraz, gauza itxia (funtzionatzen ez duen guztia-erentzako konponbidea ESSari ez eskatzeko egingin-dako gogoeta).

Aldiz, hau BADA ESSa: **zenbait balio eta jardunbide, alternatibei aukera uzten dieten printzipioetan oinarrituak.**

Mugimendu bat ere bada: errealitate globala eta tokian tokikoa eraldatzea xede duen mugimendu gisa eratzen dira jardunbideak.

Lehentasan kontua da ESSa. Helburua: bizitzaren jasangarritasuna (herriak, jendea, komunitateak). Helburu horren zerbitzura egon behar du jarduera ekonomikoak, hura lortzeko baliabide bat baita. Horretarako, baina, hankaz gora jarri behar da sistema menderatzailea, zeinak bitartekotzat baitauzka giza-kiak, azken helburua lortzeko baliabidetzat: aberastasuna sortzeko, alegia.

Printzipio eta jarrera solidarioak oinarri dituzten jardunbideak sustatu nahi ditu ESSak: zaintza, laguntza, lankidetzeta...

Garrantzizkoa: pertsonen inkoherentziak ezagutzea. Ulertu egiten ditu testuingurua eta aukerak. Ez du nahi erabateko eta berehalako haustura inguratzen gaituen munduarekiko.

Printzipioak, berriz, hauek ditu: zuzentasuna, lan duina, ingurumenaren jasangarritasuna, lankidetzeta, aberastasuna banatzea eta ingurumenarekiko konpromisoa.

Printzipio horiek oinarri dituela, zenbait JARDUERA bultzatzen ditu ESSak:

- Kapitalismoaren mugetatik harago doazen ekimen ekonomikoak sustatzen ditu, eta enpresaren balioa berreskuratzen.

- Gizarte-auditoriak egiten ditu, aurrerapenak neurtzeko adierazle zehatzak erabiliz.
- Bizigarritasunaren arabera antolatzen ditu enpresak (bidezkoak, partaidetza-zakoak, ekofeminismoa aintzat hartzen dutenak...).
- Adibide bat: enpresa kooperatiboek gainerakoek baino BI ALDIZ LANPOSTU GEHIAGO sortzen dituzte.
- Partaidetza lurralde- eta sektore-sareetan.
 - **Finantza**-jarduera eta **finantzaketa**-tresnak ere sustatzen ditu ESSak. Eraldaketarako hazi gisa ikusten du finantzaketa, ekintza zehatzak eta eraldatze-prozesuak bultzatzen baititu. Carlosek lehenbiziko hitzaurrean aipatzen zuen finantzaketaren beharra, eta jardunaldia osoan errepikatu da ideia hori.
 - Beharrak asetzeko, kontsumo kooperatiboa: esate baterako, energia (kontsumoa eta ekoizpena), elikadura, gasa, nekazaritza (hori ere komunitatearen babesaz), etxebizitzak (bazegoen lehenetik ere, baina indarra galduz joan zen; orain, badago hura berreskuratzeko mugimendu bat: etxebizitza ez da zurea, kooperatibarena da, baina bizitza pribaturako eremuak eta eremu kolektiboak parteka daitezke).
 - Bidezko merkataritza: geroz eta aukera gehiago, geroz eta sektore gehiagotan (telefonía mugikorra, irabazi-asmorik gabeko operadoreak...).
 - Komunikazioa ere jorratzen du ESSak, eremu eraldatzaileak sorraraz baititzake.
 - Besteak beste, ekonomia komunitarioak bultzatzen ditu, diru-truketik harago doazenak: denbora-merkatuak, trukea, txanpon sozialak, haizak, doakotasunak ekonomian duen balioa, etab.

Oso utopikoa da ESSa, baina guztiz erreala; hori dela eta, ezin da erraz baztertu.

Desafio handi bat: ESSak gai izan behar du alternatibak eskaintzeko ekonomia-
ren alor GUZTIETAN.

Herri indigenen jarduerak aldarrikatzea, Mendebaldeko ikuspegia alde batera utzirik (esate baterako, ekofeminismoa). Zenbait ekintza eta jardunbide martxan dira, batez ere emakume indigenei bultzatuak.

Alor instituzionalaren jarduna zalantzan jartzen du, eta **funtsezkoa hau dela deritzo: sareko mobilizazio soziala eta politikoa, eta erakunde publikoei «presioa» egitea egiturak aldatzeko**. Zaila da lankidetzak, egiturak oztopatu egiten baitu. Zenbait inkoherentzia atzematen ditu alor publikoan, elkarrekin talka egiten duten zenbait ekimen eta proposamen. Ekonomia garatzeko politikak gizarte-garapeneko politikei kontrajarriak direla ere ikusten da. Tokian tokiko erakundeekin egiten du lan REASei, baina ondo dakite eremu horiek ere badituztela beren mugak.

4. GIZARTE ERALDATZAILEA ERAIKITZEA GIZARTE-BERRIKUNTZAN ETA EKINTZAILETZAN OINARRITUTA: DIASPORA, KULTURARTEKOTASUNA ETA ALDAKETA-ERAGILEAK

ELKARRIZKETA: KOOP SF 34 (George Belinga), ASHOKA (Irene Milleiro),
MTA MONDRAGÓN (Lander Jiménez)



Ainhoa Pérez-Arróspide (KCD GGKE), George Belinga (KoopSF34), Irene Milleiro (ASHOKA), Lander Jiménez (MTA Mondragón)

A) KOOP SF 34

Honela definitzen du bere burua Koop SF 34-k: ESSa sorburu duen Afrikako enpresa-haztegia («afrikar erako *coworking*»).

Era askotako ekitaldiek eta pertsonen partekatzen dute leku bera: dantza, kirola, musika eta abar. Gogoia, ez da beste ezer behar...

Erakundeak funtsezkoak direla deritzo. Hasieran, ondasun publikoak «erauzten» dituztelako usteari egin behar izaten diote aurre migratzaileek. Horregatik, hasieran ez ziren fidatzen erakundeez. **Baina baliabiderik eta laguntzarik gabe ez da ezer lortzen, eta aldatu egin dute estrategia. Ez dira funtsezko laguntzak, baina bai beharrezkoak.**

Gogoeta interesgarri bat partekatzen dute, gizartearen gehiengoari zuzentzen zaiona. *Batzuetan, ghettoak osatzea edo haietan geratzea leporatzen zaie, baina Koop-entzat hiriaren gainerako auzoak dira ghettoak. Izan ere, 20 nazio desberdinetako jendea bizi da Koop-en.*

Funtsezkoa da proiektuen jasangarritasuna. Ekimen jasangarriak bultzatu behar ditu lankidetzak. Tokian tokiko ekimenak eta ekonomia sortu behar ditu, eta indartu.

EAEn, baliabide ekonomikoak sortzea da jasangarritasunaren egiteko nagusia, baita zerbitzuen alorrean ere. Horretarako, baina, baliabide propioak eduki behar dira.

Epe luzera begiratzeko premia (20-30 urte). Hona beste gogoeta interesgarri bat: paradoxikoki, badirudi epe luzerako begirada horiek hobeto moldatzen direla ingurune ez-demokratikoetan, lau urtean behin hauteskunderen zain daudenak ez bezala.

Aniztasunaren erronkak: denek ez dute dena berdin ikusten. Komunikazioa eta «moduak» desberdinak direnez, arazoak sortzen dira; aldaketa kulturalak ere hor daude...; eta, oro har, **are konplexuagoa izaten da gizartearen antolakuntza, kudeaketa eta sendotzea baldin eta askotariko jendez osatua badago.** Talde heterogeneotan, ezin dira saihestu bitarteko pausoak. Oso konplexua izaten da proiektuen barruko lankidetzak.

Konplexua izaten da, halaber, emakumeen partaidetza. Koop-en kasuan, sektore maskulinizatueta egiten du lan; hori dela eta, zaila da emakumeak erakartzea, batez ere alde aurretik emakumeekin loturarik ez duten ekimenetara. Ekin zaio arazoari, baina oraindik ere aztertzen ari dira nola egin aurrera. Koope-
ratibako organo erabakitzailean, aldiz, handiagoa da berdintasun-maila, kideen ia erdiak emakumeak baitira.

B) ASHOKA

Helburua: jendea ohartzea aldaketa-eragileak direla,

- **gizartean ekintzaile-lana** egiten duen jendea bilatuz,
- hezkuntza-sektorean gaitasun berriak irakasten dituzten liderrak bilatuz,
- **gazteei** aukerak eskainiz,
- eta **diasporari** ere lekua eginez.

Aniztasuna behar du berrikuntzak; Espainian, ordea, ez dago horretatik askorik.

Diaspora funtsezko eragilea izan daitekeela atzeman da. Lidergoak, erakundeak... behar dituzte. Diote garrantzizkoa dela diagnostiko-prozesuari ekitea, zer behar duten ongi jakitea, eta giza talde horretarako baliagarri bihurtzea, baina ez proposamenak haien beharretara egokituz, baizik eta beharren arabera eraikiz proposamenak.

Alor publikoaren egitekoa: egitura eta sistema aldaraztera eramango gaituen begirada sistemikoa balioestea. Epe laburrekoa da politikaren begirada; beraz, egiturazko begirada falta da, eta, horrekin batera, epe luzeko finantzaketa. Urtebeteko edo bi urteko proiektuek ez dute benetako prozesurik eta aldatarik eragiten.

Gizarte-berrikuntza: konponbide berriak lehendik dauzkagun arazoei.





Erronkak:

- Hezkuntza. Aldaketa-eragilerik sortzen ez dugunez, epe luzerako begirada falta da (Espainia da munduko hirugarren herrialderik zaharrena); **finantza-keta falta da proiektu txikiak bultzatu eta hazarazteko.**
- Aniztasuna: **inklusioa da giltzarria** (ez du balio partaidetza hutsak, edo parte hartzeko gonbitak). Funtsezkoa da berariazko eremuak sortzea aniztasuna eroso senti dadin. Desberdintasuna sustatzen duen sistema diskriminatzaile bat sortu dugu, eta haren barruan gizarteratu gara. Horretaz jabetu beharra daukate bai pertsonak bai erakundeek, jokabideak aldatu eta eremu inklusiboak eraikitzeko.

Emakumeen parte-hartzea: Ashokan, ia ordezkaritza-maila bera dute gizonak eta emakumeek. Baina bestelako jokabide bat behar da, egiturazko baldintzaileak zaildu egiten baitute garapena. Zenbait desafio ditugu:

- segurtasun-eremuak sortzea
- nortasuna sortzea, hots, emakumeen ikuspegitik ekintzaile izatea
- lidergoak aldatzea, eta lankidetzaren aldekoak bultzatzea
- ongizatearen ideia garatzea.

C) MONDRAGÓN TEAM ACADEMY - AFRICA BASQUE CHALLENGE

Elkarrekin gauza handiak egiteko jendea behar dute. Enpresak aldaketarako eta eraldaketarako baliabide gisa erabiltzen dituen jendea behar dute. Helburua: taldea sortzea, berritzeko eta esperimentatzeko; ikasteko sortzea.

Aniztasunak konponbide hobeak sor ditzake. **Talde kulturantzunak hobeto funtziona dezakete, baina okerrago ere bai. ENPATIA dago aldea, funtsezkoa baita adimen kolektiboa sorrarazteko.** Arazo globalak konpontzeko talde pluralak eta enpatikoak baldin baditugu, konponbide hobeak aurkituko ditugu.

Gizarte-ekintzailetza/lankidetzak: gizartean duen eraginaren arabera neurtzen da inbertsioaren itzulkina.

Kontzeptu berri bat: «inpaktuko inbertsioa», non inbertitzaileen xede bakarra ez baita etekin ekonomikoa, gizarte- edo ingurumen-etekina ere hor baitaude. Hau da, eragin soziala ere itzulkin gisa hartzen da, inbertitzaile tradizionalak ez bezala, zeinek inbertsioaren etekin ekonomikoari bakarrik begiratzen baitiote. Hortik dator Venture Philantropy kontzeptua ere, zeinaren bultzatzaileak prest baitaude itzulkin ekonomikoari uko egiteko, baldin eta horren truke eragin positiboa eta neurgarria baldin badu inbertsioak eta haren gizarte- edo ingurumen-itzulkina ziurtatzen bada.

Badira inpaktu-inbertitzaileak, baina gutxi eredu kooperatiboetan inbertitzen dutenak. Testuinguru horretan gertatzen da inbertsioaren eta gizarte-berrikuntzaren arteko haustura hori.

Lehendik ere hor zeuden balio komunitarioak berreskuratu behar dira.

Ekintzailearen irudi jakin bat plazaratzen da: gizonezkoa, lider kementsua... Erreferentzia horren alternatiba gisa, taldeko ekintzailetza kolektiboaren eta kooperatiboaren adibideak sustatu behar dira.

«**Barruan ez badago etsairik, kanpoko inongo etsaik ezin dizu kalterik egin**» (Afrikako esaera). Banaka egin behar dugu lan, barnerantz begira, **talde-lanean egiten den xede partekatua bilaketa enpresa-proiektu bihurtzen, pertsonen beharrak asetzeko helburu duena eta inpaktu positiboa dakarrena.**

Hezkuntza-komunitatearen egitekoa: aurkikuntzaren bidez ikastea —proiektu-ka, talde-lanaren bitartez—, gai guztietan arazo berak jorratuz.

Gizarte-ekintzailetzaren arloan, adibidez, **enpresa dugu ikaskuntza kolektibo eta enpatikoko laborategia.**

Aniztasunaren erronkak: asko ikasi behar da, lan egin, jardun...; zenbait elkarriketa-mota indartu behar dira: besteak aitortu eta, ondoren, eraikuntza kolektiboko guneak sortu, norberaren ikuspegitik mugituz, besteak menderatu gabe eta haien mende jarri gabe. Esperientziak dioskunez, **DENBORA** behar da, ordu luzez **HITZ EGIN**, errespetuzko elkarriketatik eztabaidara jotzeko.

Emakumeen parte-hartzea sustatzeko, aldatu egin behar dira proiektuen publizitatea egiteko estrategiak.

Halaber, aldaketak egin behar dira lidergo-postuetan: gizonak lantaldeen buru, emakumeak enpresaren zaintzari lotutako postuetan. Horretan ari dira, pertsonen aniztasunari ekiteko ahaleginean.

5. COMUNICARTE

Marilyn Solaya



J. Carlos Vázquez (KCD GGKE), Marilyn Solaya (Todas Producciones Cuba)



Habanako jaialdian ezagutu zuen Marylin KCD ONGDk, *En el cuerpo equivocado* dokumentala (Okerreko gorputzean) aurkeztu zuenean. Fikzioko lan bihurtu nahi zuen dokumentala, eta horretarako laguntza behar zuen. Euskadira etortzeko laguntza eman zioten, hemen ekoizleren bat aurki zezan. Geroago, bi sari irabazi zituen haren *Vestido de novia* filmak (Andregaiaren soinekoa) 2015eko Bilboko «Film sozialak» Nazioarteko Zinema Ikusezinaren Jaialdian; ondoren, Latinoamerikako bost film onenen artean geratu zen Goya Sarietan, eta ospetsu bihurtzen hasi zen. 2019an eman zuten haren *Todas* dokumentala (Denak), 11. Zinema Ikusezinaren inaugurazio-ekitaldian; 2023an, berriz, lan hura oinarri duen fikziozko lana argitaratuko da.

Artea, hizkuntza eta komunikazioa da zinema; irudien, enkoadraketen, efektu berezien, muntaiairen, gidoiaren, soinuaren eta hitzaren bidez mintzatzen da.

Garai baten isla da zinema.

Italiako poeta bat aipatzen du (1911), zeinaren agiriak zazpi arteak aldarrikatzen baitzituen: arkitektura, eskultura, pintura, dantza, musika, poesia eta zinema. Argazkilaritzari, berriz, zortzigarren artea deitzen zaio gaur egun.

Entretenimendua da zinemaren muina. Batzuen iritziz, zinemarik artistikoenak museoetan egon behar luke ikusgai, ez zinema-aretoetan.

Ikusteko, begiratzea ez da aski. Ikusle gehienek zinema-pantailara begiratzten dute, baina ez dute ikusten.

Zinemak entretenimendu-hutsa izan behar duela aldarrikatzeak ez du zentzurik. Oro har, iristen zaigun zinema ez da artea. Bestalde, oso kontu garestia da zinema, geroz eta garestiagoa,

teknologia berriak direla eta demokratizatu egin dela uste dugun arren. Okerra da ustea.

Gure asmoa ez da entretenitzea xede duen zinema komertzialaren aurka jotzea, Baina zinema-mota hori da finantzaketa handiena jasotzen duena, errazen banatzen dena, film gehiena bereganatzen dituen, bestea menderatzen eta garaitzen duena.

Batzuen iritziz, zinema komertziala ez da artea. Beste batzuek diote dibertitzea duela xede eta, beraz, ez dela artea.

Sentsibilizazio-tresna garrantzitsua da zinema, gizateria hondatzen edo hondatu duten zenbait arazo ulertarazteko gaitasuna daukana. Holokaustoari buruzko zinema dugu horren adibideetako bat. Gizartearen eraldatzeko funtsezko tresna izan daiteke.

Artea da zinema, hura egiten duenari gauzak adierazteko ahalmena ematen baitio, eta haien interpretatzekoa ikusten duenari.

«Nahikoa arrazoi nuen inork ez pentsatzea artista izatera irits nintekeela ni horretan saiatzeko».

Oso zaila zaie emakumeei fikziozko bigarren filma egitea, baita lehenbizikoak arrakasta izan badu ere. Marylinek bigarren filma egin behar du, lehenbizikoa egin zuela hamar urte igaro eta gero. Hau da, ez da askoz film gehiago egiteko adina biziko.

Garrantzitsua da herrialde bateko memoria historiko femeninoa eta feminista erreskatatzea.

Gizonek idazten dituzte liburuak, eta gu kanpoan utzi gintuzten. Gehiago identifikatzen dira gizonen istorioekin, hori da kontua. Eta gauza bera gertatzen da zer istorio kontatu nahi duten erabakitzeke orduan. **Kubako Institutuak**, aldiz, **zera lortu du: erabakitzen duten eta gaiarekiko sentikorrak diren emakume gehiago egotea, emakumeen istorio gehiago hauta daitezten**. Izan ere, pantailetan edo sareetan ez dagoena ez da existitzen. Eta emakumeon historia ez baldin badago hedabide horietan, ez gara inoiz existituko.

Egin nahi dudak zinemak beti jorratuko dituenz gai konplexuak, gutxiengoei buruzkoa, aise ulertzen ez direnak..., eta gizarte patriarkal honen aurreiritzi guztiak jasan behar dituenz, bada nire filmek ez dute izango nire gizonezko lankideen pelikulen erritmo bera. Gizonezkoek beste aukera batzuk izan ohi dituzte.

Iraultza baino lehen ere oso garrantzitsua zen feminismoa Kuban, eta horregatik onartu eta aplikatu ziren emakumeen eskubideen aldeko legeak. Baina ez zen inoiz gehiago feminismoaz hitz egin. Eta hitz egin beharra dago. Matxismoa eta patriarkatua, izan ere, ez dira ez ezkerrekoak ez eskuinekoak.

Dokumentalari lotutako *Todas* erakusketak emakumeei buruzko istorio berriak kontatzen ditu probintzia bakoitzean, **eta feminismo dekoloniala, sektore artekoa ari da sakontzen** (emakume beltzen egoeraz mintzatzeaz, adibidez, zergatik ez zen sartu emakume beltzik Kubako Kongresura 1939ra arte). **Baina istorio horiek emakume beltzek kontatu behar dituzte, emakume zuria nai-zen aldetik ezin baitezaket haiek bezala kontatu.**

Kontraesanak eta paradoxak izan dira gauzarik mingarriena —eta onartzen zai-lena— Marylinentzat. Hau da, ahal dutela esaten zaie emakumeei, trebatzeko aukera badutela, baina arazoa gero iristen da. Non daude zinema ikasi duten Kubako emakume guztiak? 1959tik 2014ra arte Kuban egindako film guztietatik, hiru bakarrik dira emakumeek zuzenduak.



2. EGUNA

6. KOMUNITATE-BIZIPENAK KOMUNIKAZIO ERALDATZAILEAN EL SALVADORREN

ACUA

(Ernesto Hernández)

ACUAren esanahia:

- Ura (ezinbestekoa bizitzeko)
- Elikadura

Komunikaziorik gabeko erakundeek ez dute funtzionatzen. Irrati komunitarioaren eskutik sortu zen ACUA, eta haren eskutik jarraitzen du lanean.

Hamazazpi urte daramate autogestio komunitarioan lanean, **partaidetzazko ikaskuntza-prozesuak** jorratuz eta eredu matxistak desmuntatuz; besteak beste, emakumeen eskubideen alde jarduteko gogoeta-prozesua. Baina gizonekin ere egiten dute lan, eta haien jokabideak eta jarrerak aldatzen saiatzen dira. **Maskulinitate berriak jorratzeko lan-metodologia berriak sartzen.**

Lehenik eta behin, zer eskubide dituzten jakin behar da, ondoren haiek aldarrikatzeko. Erronkaren zati bat, hain zuzen ere, hutsetik abiatzea da, komunitatearekin eskubideez mintzatzea. Izan ere, jende askok ez daki ez idazten, ez irakurtzen.

LERRO ESTRATEGIKOAK:

1. Ura eta saneamendua izateko giza eskubidearen alde egitea.
2. Nekazaritza jasangarriari buruzko ikuspegi agroekologikoa, bizitzeko baliabide iraunkorrak babesteko.
3. Gizarte-komunikazio eraldatzailea komunitatea egituratzeko tresna gisa, betekizunen arduradunei helarazi behar zaiena.
4. Erakundeak sendotzea: gogoeta-prozesua

Eskubide horiek betearazteko, proiektuak, diagnostikoak eta politika publikoen proposamenak baliatzen dituzte. Ez dago eskubide horiek bermatzen dituen legerik.

Adierazpen-askatasunaz mintzatzea atzera egitea da, baina horretaz ari dira hitz egiten El Salvadorren gaur egun. **Oraindik ere aldarrikatu egin behar da adierazpen-askatasuna.**

Lan egiten duen lurraldean dagoenez bulegoa, jendearengandik hurbil dago.

Eragile ugari:

- Emakumeak: batez ere eurei dagozkien alorretan jarduten dira (ura, familieren ekonomia...)
- Gazteak

Herritarren % 52 30 urtez beherakoa da. Jende askok migratzen du AEBra. 1990eko hamarkadako politikak «maquila» bihurtu zuen El Salvador: aduana-zergarik gabeko eremu bat sortu zuten, langileak erruz esplotatzen, eta herritar gehienek emigratzea erabaki zuten.

Bestalde, ura izateko eskubidea ari dira urratzen: biztanleriaren % 37k ez dauka eskuragarri baliabide hori.

TESTUINGURU POLITIKOA:

- Herritarren % 25ek hautatu zuen presidentea.
- Sare sozialen bidez gobernatzen du, eta argiro erakusten nola manipulatu duten iritziz publikoa plataforma handiek. Itxurazkoa da presidentek herritarren artean duen onarpen-maila, oposizioa ez baita agertzen sare sozialetan. Bazterrera uzten dute.
- Legebiltzarreko osoko bilkuran sendotu zuen gehiengoa. Justizia, botere legegilea eta betearazlea kontrolatzen ditu. Ez dago oposiziorik, botere judiziala presidentearen alde baitago. Adierazpen-askatasuna arriskupean jartzen du.
- Gorroto-diskurtsoa erabiltzen du gizarte-erakundeen, hedabideen eta kazetarien aurka.
- Zentsura, irainak, hackeatzeak eta atxiloketak. Ez dago adierazpen-askatasunik. **Oso zaila da hango testuingurua komunikaziorako.** Litekeena da gobernuak irati-maiztasunak kentzea; hala egingo balu, **arriskuan legoke Radio Bálsamoren euskarri digitalerako trantsizioa.**

BÁLSAMO IRRATIA-TELEBISTA

Eduki kritikoa partekatzen jarraitzeko aukera ematen du plataforma aniztuenak. Boterearen aurkako komunikazioa, partaidetzazkoa. Salaketa soziala. Giza eskubideen alde jardutea. Kanpaina sozialak; eduki sozialeko ekoizpena.

Edukien dibertsifikazioa: 2022an, zinema independentearen eta profesionalaren ekoizpenari ekin zaio. *Isabela* da gertakari errealetan oinarritutako fikziozko lehen film laburra. *Disidentes* da fikziozko beste film labur bat. Bizipen komunitarioei buruzkoak dira ekoizpen horiek.

Nola egiten da ekoizpen-erakunde batetik komunikazio-erakunde baterako trantsizioa?

Pandemiak agerian utzi zuen jendearengana iristeko zailtasuna. Horrenbestez, sareen bidez hezkuntza-bideoak ekoizteari ekin zion erakundeak. Baina landa-





-eremuan ez dago Internetera konektatzeko modurik, garestia baita. Bideoarekin batera, saldoa bidali behar izaten zen, ikusi ahal zezaten.

Pandemiak eragindako eskubide-murritzketen aurkako kanpainak jarri ziren martxan. Erronka berri bati ekin behar izan zion erakundeak: gehiena kontsumitzen diren formatuak erabiltzeari, eduki soziala partekatu eta kontsumitu dadin.

Oharturik plataforma berriek areagotu egin dutela kalitate-eskakizuna, hau erabaki du Bálsmok: jende gehiago kontratatzea telebistarako (3) irratirako baino (2).

Nabaria da testuinguruaren bilakaerara egokitzeko erakundeak erakutsi duen gaitasuna.

Zenbait arrisku jasaten dituzte eskubideak aldarrikatzen dituzten emakumeek. Baina arriskuak ez dira fisikoak bakarrik: hackeatzeko, espiatzeko eta eraso egiteko teknologia berriak ari dira erabiltzen. Zer mekanismo daude errepresio-bide berriei eta eskubideen aurkako erasoei aurre egiteko?

Erronka izaten jarraitzen du, oso aldakorra baita eraso egiteko era: konponbide bat aurkituko orduko, beste mehatxu bat agertzen da. Gogoeta-prozesu eten-gabea. Nazioarteko mekanismoekin koordinatzea. Beste hedabide batzuekin elkartzea; nazioarteko sareetan jardutea. Barne-segurtasuneko protokoloak berrikustea (etengabe eguneratzea).

Nola erantzun du publikoak irratiko eta telebistako edukiak direla eta?

Oraindik ez dira plazaratu fikziozko film laburrak? Bi aldiz proiektatu dira. Haie-tako batean, kontaktzen diren gertakariak jasan zituen pertsonaren senideak egon ziren. Bilboko Zinema Ikusezineko «Film sozialak» Nazioarteko Jaialdirako inskribatu dira bi film laburrak. Gerora ere proiektatzekoa da. Herritarrek atzar-tzea da asmoa, gobernuak baimendutako hedabideetan argitaratzen diren isto-rieoz gain besterik ere entzun dezaten.

Formatu-eskarian ere eragin al dute aldaketarik plataforma berriek?

Argi zeukaten edukian zer azaldu nahi zuten. Nola kontaktzen den, formatua, argazki-zuzendariari eta abarri dagokie gehienbat. Orain, film laburrak ikusten dituen jendearekin feedback egiten ari dira. Baina ziur gara gure izen ona zi-kintzeko ekintzak egingo direla sare sozialetan. Zaila da informazio baliagarria bereiztea.

«Sare sozialak ez dira ez hain sare eta ez hain sozial, baina hor egon behar dugu, kontzientzia kritikoa ernarazteko edukia sortzen».

Egiturazko gaia bilakatu da testuingurua. Kolapso ekonomikora garamatzan diktadura batek gobernatzen gaituela entzuten da jada (kreditu-arriskua). Bi hilabete eskasean, 30.000 bat lagun atxilotu dituzte «bandakideak» izatearen akusaziopean. Atxilotuetako askok 12 urte besterik ez dute. Oso iluna da herritar horien geroa. Organo publikoek ez dute informaziorik ematen. Errepresio latza ari da jasaten herria.

7. HERRI-KOMUNIKAZIOA EL SALVADORREKO GIZARTE- ETA HERRI-MUGIMENDUEN ZERBITZURA

EQUIPO MAÍZ

(Elsy Yanira Mejía)



Cristina Alba (KCD GGKE), Elsy Yanira Mejía (Equipo Maíz), Ángel Ernesto Hernández (ACUA)

Herri-hezkuntzarako trebakuntzan espezializatutako erakundea da Equipo Maíz.

Xedea: hezkuntza-jarduera sendotzea. Bidegabekeriaren eta zuzengabekeriaren aurka borrokatzea.

Gaiak: ekonomia politikoa, generoa, herri-antolakuntza, ekologia eta historia. Aldatuz eta handituz joan dira gai horiek.

Romero monsinorearen ikuspegia erabiltzen dute, baina ikuspuntu zabalagoak erantsita (herrien ikuspegia).

TESTUINGURU OROKORRA:

Moderno-itxurak egiten saiatzen da gobernuak, baina herritarrek ez dute horrela ikusten. Talde ekonomiko ahaltzuen sendotzea. Giza eskubideen etengabeko urratzea. Murriztu egin da emakume eta gazteentzako aurrekontua, baina handitu polizia eta indar armatuentzakoak. Herritarrak erreprimitzen ari dira indar armatuak. Bi aldiz onartu dute jada salbuespen-egoera; elkartzeko eskubidea murriztea ekarri du horrek berekin.

Gogor ari dira estigmatizatzen zenbait talde eta erakunde. Erresistentzia gisa, herri-erakundeak antolatzen ari dira.



Funtsezkoa da komunikazioa. **Zer da herri-komunikazioa?** Pertsona bat beste batekiko lankidetzat mentalari ekiten dion prozesua, non biak kontzientzia bera izatera iristen baitira. **Komunikatzea ez ezik, errealitateak aldatzea du xede komunikazio horrek.** Tresna ahaltsua da, gizarte-erakundeek eraldaketari ekiteko egokia. Ezagutza komunikazio-prozesuan txertatuz doa, eta hura ere aldatu eta egokitu egiten da.

Eraginkortasun eskasekoa izaten da antolakuntzarik gabeko komunikazioa, eta gauza bera gertatzen da alderantziz. Antolakuntza eta komunikazioa, biak behar dira. Hortik jo behar du gizarte-erakundeen estrategiak.

Dena dela, argitu beharra dago zeri deritzogun komunikazioa, era askotako jendea egoten baita erakundeetan; jatorri eta adin desberdinetakoak, besteak beste. Tresnak eman behar zaizkie erakundeei, komunikazioaz egiazki balia dai-tezen.

Kalera jo behar dugu berriro. Ez da aski sare sozialak erabiltzea. Eta hiriburutik kanpora ere areagotu behar da borroka hori, lurralde bakoitzeko arazoei erreparatuta. Zer eskubide dituzten jakin behar dute herritarrek, ondoren haiek aldarrikatzeko. Hitz egin egin behar da. Komunikazioa behar du borroka sozialak. **Eduki baliagarria ez ezik, komunikazio-formatu erakargarria ere behar dugu jendea gureganatzeko. Hazteko, borrokan sinesten duen jende berria behar dute erakundeek. Komunikazioak elkartu egiten du jendea; bakarka, ez duzu ezer lortuko.**

Honenbestez, honetan laguntzen die Equipo Maízek gizarte-erakundeei: unean uneko gaiet buruzko trebakuntzan eta komunikazioan (epe labur eta/edo ertainera alda daiteke egoera jakin bat), **bai eta egiturazko gaiet buruzkoan ere** (sistemarekin lotura dutenak, aldatzen ez direnak). Unean uneko gaiak dira lantzeko zailenak, ekiten zaienerako agian joana baita horretarako momentua eta lanaren eragina ez da hainbestekoa.

Erakundeek hartu behar dute beren gain informazioa gizarteratzearen eta haren edukien ardura: zer baliabide erabili, zer eduki sortu, nola zabaldu...

Hona adibide bat: bideo baten bidez jarri da ikusgai emakumeak eta haurrak COVID-19aren aurkako neurrietatik babesteko kanpaina.

Ikusgarria da estetika. Bikaina lana. Nola funtzionatzen du Estatuaren aurkako kritika hain zuzenak? Agian hobeto iristen da mezua gizartera, baina Estatuaren errepresio gogorragoa ere eragin dezake.

Borrokan ari diren gizarte-antolakundeei laguntza ematen dien erakunde bat da Equipo Maíz. Zuzenak eta argiak izateko garaia da oraingo hau. Gobernuak onarpen-maila oso handia du gizartean, eta eraso asko jasotzen ditu erakundeak sareetan, baina, hala eta guztiz ere, zuzen eta argi hitz egin behar dela uste dute. Dena dela, kontuz ibiltzen dira, gauzak urrutirago joan ez daitezen. **Eraldaketa bultzatu behar du herri-komunikazioak; horretarako, motibatu**

egin behar da jendea, eta —agian— mezu zuzenagoak eta «gatazkatsua-
goak» plazaratu.

«Borroka» hitzari buruzko gogoeta labur bat. Maiz erabili ohi dute hitz hori mugimendu sozialek. Baina borrokak indarkeria dakar berekin, eta hori da sistema kapitalistak eta patriarkatuak proposatzen dutena. Beharbada saihestu egin behar litzateke kontzeptu hori erabiltzea erantzun sozialetan eta eraldatze-prozesuak sortzean. Aktibismoak erantzunak sortzen ditu, ez borroka.

Bortitza da sistema, eta bortitza izan behar du erantzunak ere. Boterean daudenentzat, erresistentzia beti da bortitza. Baina indarkeria ez da «gatazka» deritzogun hori. Kontzeptu historikoa ere bada borroka. Izan ere, eraldaketak ez dira errazak izaten, eta era askotako erantzunak behar izaten dituzte.

Hitzaldiaren amaieran, maiatzaren 17a LGTBfobiaren Aurkako Eguna dela gogoratu zuen KCD ONGDK, eta talde horrek pairatzen dituen diskriminazioen aurka borrokatzera dei egin zuen.

8. OJO DE AGUA COMUNICACIÓNEN KOMUNIKAZIO KOMUNITARIOA: MEXIKON IBILTZEN ETA IKASTEN

OJO DE AGUA COMUNICACIÓN INDÍGENA
(Guillermo Monteforte)



Cristina Alba (KCD GGKE), Guillermo Monteforte (Ojo de Agua Comunicación Indígena)

Hedabideetan zer gertatzen ari ote zen jakitearren sortu zen Ojo de Agua. Intuzioa eta esperientzia metatzeko gogoia izan zituen bultzagile hasieran.



Mexikon erruz erabiltzen da estatistika, zeinak hau baitio: **estaturik pobreenak, herritar indigena gehiena bizi direnak**. Arrazakeria eta bazterketa jasaten dute herritar horiek.

Oaxacako herritarren % 65 indigenak dira. Gehiengoa dira, ez gutxiengoa; hala eta guztiz ere, oso ordezkari gutxi dituzte organo erabakitzaileetan. Biztanleen % 75en iritziz, jende gehienak gutxietsi egiten ditu indigenak. **Nabarmena da diskriminazioa**.

Zer dira hedabide komunitarioak?

Komunikazio komunitarioari buruzko gogoeta-prozesu batean dihardu Ojo de Aguak, Bolivia, Brasil eta Kolonbiako zenbait proiektuekin elkarlanean. **Komunitatea bera da hedabidea. Mikrofonoaren atzean dagoena, aurrean ere badago. Komunikatzaileak entzule ere badira**.

Ahalduntze-prozesu politiko bat jartzen da martxan gizartean jendea hone-taz ohartzen denean: komunikatzeko eta komunikatzaile izateko gaitasuna duela.

Bestelako hedabideak sustatuz eta sortuz laguntzen dio Ojo de Aguak mundu zuzenago baten eraikuntzari. **Herriak eraldatzen lagundu behar dute hedabi-deek, baina baita gizarte osoa ere**. Ikusezin bihurtutako herritar ez-indigene-kin ere egiten du lan erakunde horrek.

Lehendik martxan zeuden zortzi irrati komunitario sendotzen laguntzen du Ojo de Aguak. Gaur egun, erraza da irrati bat martxan jartzeko ekipamendua esku-ratzea, baina hori lortu eta gero, zer egin behar da irrati tresna baliagarria izan dadin komunitatearentzat? Hori da benetako prozesua.

Gobernuaren inongo baimenik gabe sortzen dira irrati asko. Izan ere, ez zegoen baimen-eremurik hedabide komunitarioetarako. Bestalde, hor zegoen auto-nomiaren printzipioa; hau da, ez dagoela gobernuari zertan baimenik eskatu irrati martxan jartzeko, zeren eta legekoa ez izan arren herriak legitimatzen baldin badu legitimoa baita. Prozesu baten ondoren, Konstituzioa aintzat hartu zuten hedabide indigenek eta komunitarioek, asko ugaltu baitziren. Orain, erra-za da irratiak martxan jartzea, baina oraindik ere zaila da erregularizatzea. Bere horretan dirau diskriminazioak.

Gehiago erabili behar dira sareak, prozesu nazionalen eta nazioarteko bidez indarra hartuz joateko.

ZER EGITEN DUEN OJO DE AGUAK:

- Irrati komunitarioetako prozesuekin bat egiten du (entzun eta lagundu).
- Ikus-entzunezkoak eta irratsaioak ekoizten ditu, partaidetza sustatuz.
- Irratia eta zinema hedatzen saiatzen da, gutxi erabiltzen baitira hedabide horiek. Esate baterako, irrati eta zinema komunitarioko «El lugar que habita-



mos» jaialdia antolatzen du. Horri esker, hedabide nagusiak bakarrik iristen ziren zenbait lekutara heltzeko aukera dago. Abiapuntu sorkuntza komunitarioa duten gaiak jorratzen dira. Hedatze-lan handia egiten da, maila guztietan (komunitatean, etab.).

- Horretarako aukera baldin dago, politika publikoetan eragiten saiatzen da. Gobernuarekin eta erakundeekin hitz egin beharra zegoela ondorioztatu zen, horra jotzen baitzuen prozesuak ezagutzen zituen jendeak. Gogoeta sakona egin zen, baina egoeraren arabera gorabeherak izaten ditu prozesuak.

GAI NAGUSIAK:

- Lurraldearen zaintza eta defentsa. Barne-prozesuak, lurraldearen zaintzari erreparatu behar diotenak.

Adibide bat: Kantu-jaialdiak: Komunitateari interesatzen zaizkion gaiak bilatzen dira, eta musikaren arloko profesionalak gonbidatzen dira, gaiak hitz egin dezaten. Rap bat jartzen da, non emakume batek bere lurraldeko baliabide naturalak zaintzea aldarrikatzen baitu.

- Genero-berdintasuna

Oztopoak jartzen zizkieten senarrek gogoeta egiteko bileretara joan nahi zuten emakumeei, baina inork ez zuen txintik ere esaten.

Feminismo komunitarioa kontzeptua landu da, herritarrek aiseago bereganatzen baitute. Hasieran, erakundeko jendearentzat lantegiak antolatu ziren Ojo de Aguan, eta oso esperientzia eraldatzailea izan zen. Gero, hizkuntza inklusiboagoa erabiltzen hasi ginen, eta hedabide komunitarioetako jendea prestatzen, genero-ikuspegia aintzat har zezan. Dezente kostatu zen herritarrek zera ulertzea, emakumeek esku hartu behar zutela jardueretan. Pixkanaka, sakonagoak eta aberasgarriagoak bihurtu ziren elkarrizketak.

Generoari dagokionez erreferentziazkoak izango diren emakumeak trebatzen hasi ziren komunitateetan. Hedabideetako langileak, bai eta agintariak ere. Ekintza komunitarioetan eragiteko gai izan zitezen trebatzen ziren emakumeak.

Hurrengo urratsa hau izan zen: generoari dagokionez erreferentziazkoak izango diren gizonak prestatzea. Harrituta utzi gintuen emaitzak, batez ere gizon gazteen artean izandakoak.

Norbanakoa da abiapuntu, baina gero alor kolektibora jo behar da. Hartara, autokritika sortzen da komunitatean islatzen den taldean, haren baliabideen eta antolakuntza propioaren bitartez.

Oso interesgarria da gizonen genero-prozesuen balorazio positiboa.



Zeharkakoa ari da bilakatzen generoaren gaia. Inkestek esaten digutenez, herritarrek biziki estimatzen dituzte irrati komunitarioak eta generoaren alorreko gaiak. Nabari da aldaketa. Hezurmamitzen ari da.

- Belaunaldi desberdinetako jendearen arteko elkarriketak: helduak gaztee-kin eta hurrekin solasean.

LORPENAK

- Baliabide komunitario gehiago, eta sendoagoak.
- Kontzientzia eta estrategia areagotzen hedabide komunitarioetako ekin-tzetan.

«Irrati independenteen sareko» kide gara. Informatzeko —eta, behar izanez gero, mobilizatzeko— ahalmena du sareak.

Kazetari gehien hiltzen dituzten munduko herrialdeetatik, Mexiko da bigarre-na. Gobernua ezkerrekoa den arren, ez du kritikarik entzuten, eta gogorra da errepresioa.

Bestalde, desafio bat da Ojo de Aguaen jasangarritasun ekonomikoa. Beste de-saño bat: erakundean gauzatzen ari den belaunaldi-aldaketa.

Gazteekin jarduteko, oso gai garrantzitsua da musika. Erabiltzen al dira plataforma multimedialak? Nola kudeatzen da irratien jasangarritasun ekonomikoa? Nola irau-ten dute bizirik? Jasaten al dute jazarpenik legez kanpo jarduteagatik?

Gustuko bideo bat birala egiten da; horra mezuak hedatzeko modurik one-na: eduki erakargarriak sortzea.

Gainera, astero egiten da nazio mailako irratsaio bat, dezenteko audientzia due-na. Aipatutako jaialdia ere hedatze-tresna bat da.

Behetik eraiki behar da, sareek organikoki funtziona dezaten. Zentsura dago eremu zabalagoetan. Sare komunitarioekin jarduten dira lanean, baina sare sozialetan presentzia izatea ere inspirazio-iturria izan daiteke; gehiago lan-du behar dute hori.

Hiru ikuspegi hauek dira irrati komunitarioen jasangarritasunaren gakoak: ekonomikoa, funtzionala eta antolakuntzakoa (barnekoa). Hiru ikuspegiek funtzionatu behar dute. Erronka bat da, jende asko boluntarioa izaki. Finantza-tzeko, publizitatea erabiltzen da, baina baimena daukaten irratiek arazo gehi-garriak dituzte, besteek baino baldintza gehiago bete behar dituzte eta; esate baterako, ezin dute dirurik irabazi publizitatearen bidez.

Irrati asko konfiskatzen dituzte, baina, gero, berriro jartzen dira martxan.

Barrutik kanporantz ari da egiten generoari buruzko lana, apaltasunez.

9. BIKTIMEN PARTE-HARTZEA SIVJRNRN: KOLONBIAN BAKEA JUSTIZIAREN ETA EGIAREN ESKUTIK ERAIKITZEKO AHALEGINA

JOSÉ ALVEAR RESTREPO ABOKATU-TALDEA, CCAJAR
(Sebastián Felipe Escobar)



Sebastián Felipe Escobar (CCAJAR)

Besteak beste, artea eta komunikazioa erabiltzen ditu CCAJAREk gizarte eraldatzeko tresna gisa, betiere bakea eraikitzea xede duela.

1. Zuzenbideaz baliatzen zen abokatu-elkarte hori gizartea eraldatzen saiatzeko, **baina beste alor batzuk ere jorratu behar ziren horretarako; esate baterako, komunikazioa eta pedagogia.**

Paradigma-aldaketa bat egon da biktimen aldeko laguntzari dagokionez: banakako ikerkuntzatik ikerketa makrokriminaletara aldatu da. Beraz, lankidetzazko lan-estrategiak sortu dira, non biktimak taldeka aztertzen baitira. Baina handia da burokrazia, eta konplexua hizkuntza; hori dela eta, **komunikazio egokia behar da biktimek gogotsu har dezaten parte prozesuan.**

Horrela sortu zen «La campaña por la verdad» estrategia (Egiaren aldeko kanpaina), non **lege-auziekin batera komunikazio-jarduerak eta kaleko artea ere erabiltzen baitira salaketarako baliabide gisa.**

«Positibo faltsuak» deritzenak ugaltzen hasi zirenean abiatu zen kanpaina. Hona zer ziren positibo faltsuak: exekuzio estrajudizialetan 6.400 herritar zibil hil ondoren, agente armatuen jantziak jarri zizkieten, pizgarriak ematen baitzituzten halakoak hiltzeagatik.

Txostenak aurkeztu dira, eta **hedatze-ekintza koordinatuak** prestatu, biktimen eskubideak aldarrikatzeko. Sare sozialak erabili dira.



Informazioa zabaltzeko kanal digitalek dituzten mugak garbi ikusi dira. Bestalde, algoritmoen ekoizpenak gutxitu egiten du informazio-ahalmena, iritzi jakin batekin bat datozen hobien artean soilik trukatzeko baita informazioa.

Komunikazioarekin lotura duten bi kanpainaren berri eman da.

1. Ideia hau aurkeztu zen: «¿Quién dio la orden?» esaldia (Nork eman zuen agindua?) idaztea horma-irudi batean. Hogei gizon armatu inguratu zitzaizkien, mehatxuka, irudia margotzen ari zirenei, eta zuriz margotu zituzten mureko militarren aurpegiak.

«El discreto encanto de la censura» (Zentsuraren xarma apala). Mezua ezkutatatu beharrean, areagotu egin zuen gizon armatuen jokabide horrek. Berehalakoa eta esponentziala izan zen sare sozialetako erantzuna. Eztabaida publikoko gaia izan zen bi egunez, eta beste herrialde batzuetara ere iritsi zen horren berri; besteak beste, Ingalaterra, Frantzia eta Espainiara.

Gero, legearen bidez gaia zentsuratzen saiatu ziren militarrek, euren izen ona zikindu nahi izan omen zutela eta. Azkenean, Auzitegi Konstituzionalak esku hartu behar izan zuen, eta arrazoiak eman zien horma-irudiaren egileei: «Erantzukizunak ikertzea du xede ekintza horrek, ez inor epaitzea, eta epaitegietako prozesu judizialetan dago oinarrituta». Babestuta geratu zen diskurtsoa.

2. Erakutsi zen, bestalde, nola diskurtso juridikoko 300 orri komunikazio-bideo bihurtzen diren, biktimek eskura ditzaten. **Oso garrantzitsua da komunikazioa oinarritzko eskubideen aldeko borrokan.**

Komunikazio-atal bat du taldeak, baina abokatuek prestatzen dute edukia.

Barne- eta kanpo-komunikazioetarako gaitasunak hobetzeko ere egiten da lan.

Sintesi-ariketa garrantzitsua da hori erakundearentzat: 800 orri irakurri behar dira 15 egunean, eta hiru minutuko bideo batean laburtu.

Hona kanpaina horien emaitza: publikoki aitortu zen militarren erantzukizuna. Jeneral batek «¿Quién dio la orden?» esaldia erabili zuen entzunaldian.

Aliatu gisa jarduteko aurkeztu du bere burua KCD ONGDk, ez kontrako alderdia izateko. «Gure ekintza politikoak ez dira proiektuak bezain garrantzitsuak. Baterako sorkuntza sustatu behar da baterako ekintzetan, jarduera politikoak ikusgai bihurtzeko».

3. Behin-behineko hiri-esparrutik *smart factory* terminalera. Industria kultural eta sorkuntza adimenduneko fabrika, Bilboko Zorrotzaurren dagoena – Hacería Elkartea (Manuel Jesús Gómez-Álvarez)

Txikia sentitzen da, gainerakoek zer lan egiten duten ikusirik. Zorionez, ez da honetatik bizi izan, tren-gidaria baita eta nomina egonkorra jasotzen baitu hilaren amaieran.



Eraldaketa soziala eraldaketa pertsonala ere bada. Bi norabideko bidea da. Gogotsu entzun behar da besteek diotena, norberaren diskurtsoa besteenarekin lotzeko.

DNA artistikoa du. Artistikoki landu daitekeen eduki ugari dute GJHek. Haiek ditu inspirazio-iturri, hots, GJHak ditu sorburu bere sormenak.

Elkartean gauzatu den ekimen jakin batez ari da. Espacio Regaderaren bilera – Topagune feminista. Bizkaiko Foru Aldundiaren berdintasun-sailaren laguntza jasotzen du. Laurehun emakumek hartu dute parte; mahai-inguruan, berrehunek. Bistakoa da gogor egin dela lan aurretik parte-hartzea hain handia izateko.

Sortzeko, leku fisikoa behar da. Sortzeko, iturritik edan behar da.

Jarraian, bere ibilbideaz eta elkarteaz mintzatu da.

1997 – Dramaturgiari buruzko trebakuntza. (H)acería sortu zuen (gazelaniazko hitz-jokoa: *hacer* eta *acero*). Antzerkian ez ezik, diziplina artistiko gehiagotan ere jardun zen.

2004: Zorrotzaurre uharteko hirigintza-planaren maketa aurkeztu zuen Zaha Hadidek, eta Hacería eraisteko mehatxua agertu. Planaren epea, 30-50 urte. Jasangarritasun-foro bat antolatu zen Zorrotzaurren: Aldian behin, 400 bat auzokide elkartzen ziren Hacerían. Han erabaki zen, eskua altxatuta bozkatzuz, etxebizitzak ez eraistea, birgaitzea baizik. Batez ere gazteak azaldu ziren memoria historikoa gordetzearen alde. Zaha Hadidi gutun bat idaztea erabaki zuen Manuelek, eta hiria hobetzeko proiektu bat aurkeztu zion bere behin-behineko hirigintza-planeari.

Gaur egun, Hadiden plan hartatik ez da ezer geratzen, inspirazioa izan ezik. Baztorde bat sortu dute auzokideek, gaia aztertzeko.

Arriskua eta, aldi berean, aukera da hirigintza-plana. Arriskua eta Aukera, ekialdeko alfabetoan «Krisia» hitza idazteko bi sinbolo.

Une hartan, *work in progress* delakoa zegoen modan. Prozesua da garrantzikoena, ez emaitza. Eta hiriaren berrikuntza-prozesua martxan jartzeko aukera sortu zen, amaiera-data eta guzti.

22008 – Alderdi sozialak ez zeukan hainbesteko garrantzirik elkarrearen proiektuan. Alderdi artistikoak zeukan lehentasuna. Soziologiako praktikak egiten ari zen pertsona bat etorri zen, Zorrozaurre Art Work in Progress (ZAWP) deritzon eremuaren hiri-berrikuntzako prozesua eduki sozialez hornitzera.

Prozesuaren elementuak:

- Ekonomia suspertzea
- Gizartea eraldatzea
- Memoria historikoa gordetzea



Ez zegoen definitua ZAWP eremua. Gabonetako Haur Parkearen ordezt (GHP) Sormenaren Hiri Parkea (SHP) egitea proposatu zen.

Deialdi publikoa egin zen, ZAWPko *coworking*-eremuak betetzeko. Hogeit bat proiektu kultural hautatu ziren. Horietako bat dugu Pabellón 6 antzerki-taldearena. Bilboko Udalak dirua jaso zuen eremua birgaitzeko eta lanei jarraipena emateko. Uhartearen geratu zen proiektua behin betikoz, erakundearen laguntza eskuratuta.

Hautzaroko begirada ez dugula galdu behar dio Manuelek. Ez dugula bazterrerara utzi behar barruan daramagun neska edo mutikoa. Zintzotasuna izan dezagula bidaide.

Entzunez egiten da aurrera. Oinez zoazela, gertatu egiten dira gauzak, baldin eta prest bazaude gerta daitezzen eta begiak zein belarriak erne badituzu.

Aldaketa politikoa da benetako aldaketa sozialak eragiten dituen. Gerozt eta politikagoak izan behar dugu.

Uhartearen bizitzen ari den eremu-dinamizazioa dela eta, aldaketa ugari ari da sortzen. Dendak berriro ari dira irekitzen, eta jendearen eskarietara egokitzen.

2010 – Diru publikoa iritsi zen proiektura.

2018 – Eraitsi egin zuten ZAWP eremua, proiektuak hartzen zituen *coworking*-lekua. Diru publikoa heldu eta eremu berri bat birgaitu zen, behin betiko hori gera zitekeena.

«Bien bitartean» kontzeptua, berriz, hackeatze-proposamen bat zen, politika hirigintza-plana antolatzen ari zen bitartean erabiltzekoa. **Lehentasuna: artearen bidez gizartearen eraldatzea, begirada prozesuan bertan jarritik.**

Oihartzun zabala izan dute prozesu horretan sortutako joerak, eta lagundu egin diote gizartearen eraldatzeari. Horren adibide dugu lehenago aipatutako foro feminista.

Gazteriak ekintzailea izan behar du, eta sormena lantzeko lekua eduki. Baina ez dago trebakuntzarik. Arazo handi bat du desafio horrek: nola iritsi publikora.

Batzuetan, errazago iristen da eguneroko bizimoduko tresnen bidez. Feminismoak, adibidez, sekulako kemenak du.

Ekintza txikietatik abiatuta eraldatzen da gizartearen.

Ez dakigu elkarlanean eta auzolanean jarduten. Egun, 20 proiektu artistikok dihardute ZAWPn, baina ez elkarlanean. **Metodologiak falta dira; egoak, berriz, sobera daude.** Fanzine bat egiteko proposamena aurkeztu zen, baina ez zuen aurrera egin.

Aurrekontua, metodologia eta, batez ere, inspirazioa behar da. Eta jarraikitakuna.

Bizitzan ere gertatu ohi da «bien bitartean» delako hori. Antsietatea, baina, «bien bitartean» horren aurkakoa da.

ZAWPek lanean jarraitzeko leku berriak bilatzea dakarte eurekin desafio berriek. Eta diskurtsoa ere behar da ZAWP elikatzeko.

Orain, **La Terminalek** du lehentasuna, hura baita beste proiektu batzuei laguntzeko eremua. Habanako arte kubatarreko fabrika du inspirazio-iturri La Terminalek.

Agintariekin hitz egiten ahalegindu dira arduradunak, beste leku batzuetan aplikatzen diren neurri berak ezar ez ditzaten gunen horretan eta, hartara, gauzak egiteko aukera egon dadin leku hain berezi eta desberdinean. Esate baterako, udal-arauak aldatzea eskatu da, gazteek proiektuak martxan jartzeko modua izan dezaten.



Lauaxeta aretoa, Bizkaia Aretoa, Bilbo.

3. EGUNA

10. GIZARTE-BERRIKUNTZA, EKINTZAILETZAK ETA PROIEKTU KULTURALAK ZEIN SORTZAILEAK

HABANA HIRIKO HISTORIALARIAREN BULEGOA (OHCH)
(Malena Roche eta Ariam Luis Mayor)



J. Carlos Vázquez (KCD GGKE), Malena Roche (OHCH), Ariam Luis Mayor (OHCH)

Sektore **publikoaren eta pribatuaren arteko aliantzei** dagokienez, erreferentziatzeko lana da OHCHk egiten duena. Erakunde publiko batek ekintzaile pribatuei laguntzen die, **berrikuntzarako eta ekintzaitzarako EKOSISTEMAK sortzearen**.

Proposamen mailakatuak behar dira politika horiek publiko bilaka daitezen.

Bost urtetik behin eguneratzen eta berrikusten da Habano erdigune historikoa garatzeko 2030 Estrategia.

Ekintzaitzaren ekosistema (sistema dinamizatzen duten eragileak, eta OHCH-ren betekizuna eragile publiko gisa):

Kubako ekintzaitzari buruz hiru emakumek egindako bideo baten proiektzioa. Beste herrialde batzuekin aliantzak egiteko gonbita.

Betidanik existitzen da ekintzaitetza, baina 2010ean hasi zen haren urrezko aroa: pizgarriak, araudiak...

Zenbait ekintzailletza-mota daude; lehenbizi, oinarri teknologikoa dutenak sus-tatu dira.

Ez dira bizirauteko ekintzailletzako proiektuak. Berrikuntza eta sormena bultza-tzen duten ekimenak dira, beste herrialde batzuetakoak ez bezalakoak.

Eraikitze-prozesuan dago ekintzailletza Kuban. **Nortasun ekintzaile bat eraiki behar da.** Kontzeptua aldatu behar da: besteren kontura lan egitetik ekintzaile izatera aldatu. Sendotzen ari da aukera ekonomiko gisa. Sektore pribatuak es-tatuarenak baino diru-sarrera handiagoak ditu. Oso heterogeneoa da ekintzai-letzaren sektorea.

Herritarren beharrak asetzeko modu berriak pentsatu beharra dago.

Laguntza behar da, eremuak behar dira. Eta hori da, hain juxtu ere, OHCHren lana.

Geroz eta emakume gehiago. Emakume ekintzaileak egon daitezkeela jotzen da, baina batez ere gizonezko ekintzaileak aipatzen dira. Ekintzailletzaren alo-rrean emakumeren batek arrakasta izaten badu eta independenteagoa bilaka-tzen bada (diru-sarrera handiagoak, denbora gutxiago...), arazoak izaten has-ten da bikotekidearekin, ama gisa dagokion rolaarekin... Aldaketa garrantzitsuak dira horiek guztiak. Emakumeek ez dute ez finantzaketa planik, ez zerga-hoba-ririk. Arazoak dituzte pizgarriak eta kapital soziala lortzeko.

Interes kolektiboak eta ekintzaileen interesak eta ahalmenak uztartzen saia-tzen da OHCHa. Lurralde eta nazio mailan egiten du lan OHCHk; aukera ego-kia da, beraz. Gaztea da ekintzailletza.

Berdintasuna eta gizarte-inklusiua bultzatzen ditu OHCHk, eta hau da bere egin-kizuna: ekintzaileei laguntzea, finantzaketa eta ahalmenen garapena eskainiz.

Udalarekin batera egiten du lan OHCHk hiriko eragile ekonomikoak garatzen eta dibertsifikatzen, Garapen Planari jarraikiz. Elkarriketa-mahaiak antolatzen ditu, lantegiak...

Eremuak garatzen ere jarduten da, proiektuen garapenari laguntzearen. Hiriko herritarrak dira tokiko eta lurraldeko garapen horren eragile eta onuradun.

UNESCOK Gizateriaren Ondare izendatu zuen Habana hiriko erdigune histori-koa. Izendapen horrek zenbait erronka eta aukera dakartzkio OHCHri. Jarduera kulturaleri ematen zaie lehentasuna, eta ekintzaileentzako eremuak prestatzeari. Era askotako eragile ekonomikoak daude, eta eginkizun askotarako erabiltzen dira eremuak.

Plan Maisua deritzona da OHCHren eraginpeko lurraldea kudeatzeko elemen-tu guztien Plan Gidaria.

Ez dute zentzurik balio sozialik gabeko eraikin birgaituek.





Nola aprobeatza daiteke ondare kulturala merkantzia bihurtu gabe? Bada erdigune historikoaren bizitoki-izaerari eusten zaio: hori da elementu bereizgarria.

Bestalde, partekatu egiten dira OHCHtik ekintzailatza sustatzeko erabiltzen diren gako guztiak.

OHCHren laguntza jaso duten ekintzailatza-proiektu batzuei buruzko bideoak partekatu dira.

Bideragarritasun ekonomikoa behar dute laguntzen diren ekintzailatza-proiektuek, baina baita balio sozialak eta kulturalak ere.

Adibide batzuk: Beyond Roots, Clandestino.

Ekintzaile izatea ez da ekimen ekonomiko bat daukan eragile pribatua izatea. Erakunde publikoek ere badute erantzukizunik komunitatearen garapenarekiko.

Ondo kudeatzen badira, ondo funtzionatzen dute proiektuek. Esperientzia positiboak ditu OHCHk nazioarteko lankidetzaren alorrean; esate baterako, **Habana Espacios Creativos** —(Habana, sormenerako eremuak), 2014an Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, Tecnaliak eta KCD ONGDk sortua).

Berrikuntza, arteak eta ekintzailatza sustatzen dituen sormen-laborategi bat da Habana Espacios Creativos. Teknologia ere erabiltzen du. Kultura-etxe bat baino zerbait gehiago da, ekimen sortzaileak bultzatzen baititu. **Ondare kulturalaren batasuna du xede, eta ideia hau du ardatz: kulturaren parte da tokian tokiko ekintzailatza.**

Ekonomia sortzailea dago Habana Zaharreko kultura- eta sormen-ekosisteman. Hiri-berrikuntza sozialki arduratsua. Tokian tokiko eragileekin lan egiten duen sormen-lantegia.

Beharrak identifikatzeko diagnostiko bat egin zen, eta, besteak beste, hau azaldu zen: **eremu fisikoak behar ziren proiektu horiek garatzeko. Orain, berriaz, eremuak ez ezik, laguntza eta aholkularitza ere behar dira.** Aliantzak eta sinergiak eratzen ere laguntzen du, bai eta diseinuak, sareko sustapena, markanortasuna, marketina eta abar antolatzen ere.

Urtero, zenbait bekadun jarduten da Habana Espacios Creativosen, sortzaileen zako bekak aprobeatxatuz.

Pandemia-garaian, barne-prozedurei buruzko eskuliburuak egin ziren, eremua errazago kudeatzen lagundu dezaten.

Inklusiboa eta dinamikoa da programazio soziokulturala. Bi ardatz hauen inguruan antolatzen da eremuko edukia: interes publikoa eta beharretara egokitzen den kudeaketa-sistema dinamikoa.

Beste eremu batzuekin lankidetzan jarduteko sare bat ere badago, interesdunak elkarrekin harremanetan jarri eta inor kanpoan gera ez dadin.

Nolakoa da proiektuaren eta ekimenen jasagarritasuna?

Zenbait elementu ditu euskarri Habana Espacios Creativosen jasagarritasunak: eremuen alokairua, lankidetzaz-proiektuak, eta eremu horietan jardun diren bekadunentzako laguntzak.

Onartzen diren proiektuei dagokienez, berriz, beka experimental bat jasotzen dute; emaitzarik izaten bada, kalera irteten dira, proiektuak garatzera. Proiektuen jarraipena egiten da, eta aholkularitza ematen zaie, baina OHCHk ez du esku hartzen haien finantzaketan. Erabilgarri jarraitzen dute eremuek; bestalde, Espacio Creativorekin eta proiektuekin koprodukzio bat ere egin da.

Ba al dago ingurumen-jasagarritasunerako proiekturik?

Ekonomia zirkularraren kontzeptua ari dira jorratzen, plastikoa birziklatzeaz gain, haren kontsumoa murrizteko. Hurrengo urteotan, zenbait proiektu landuko dira alor horretan.

Nola banatzen dira bekak?

Ate irekiko jardunaldiak egiten dira, baina batez ere honek funtzionatzen du: eremuan egin diren proiektuei buruzko ahoz ahoko informazioak. Hedabide nazionalen eta eskualdekoen bitartez ere zabaltzen da informazioa, eta ekitaldietako parte-hartzeak ere laguntzen du horretan. Habanatik kanpoko jendeari bekak eskaintzeko plan bat ari da prestatzen, hiriburutik kanpo ere zabaltzeko eremuaren berri.

11. PARTAIDETZAKO KOMUNITATE-PROZESUAK ABIARAZTEA ETA ENPRESA SOZIALAK SORTZEA, MIGRAZIOAREN ERRONKEI ERANTZUTEKO

HAHATAY SON RISAS DE GANDIOL
(Mamadou Dia)

TABAX NITÉ du izena Gandiolen eraikitzen ari diren industriaguneak. Mundu berri bat eraikitzea da, nolabait esatearren; eta funtsezkoa, uneotan.

Senegalen aldaketa bat ikusteko gogoak eraginda itzuli da etxera Mamadou, eta horrek ekarri du Hahatayen jaiotza ere. Ekintzaile gisa hitz egiteari utzi eta hitzek diotena eraiki, martxan jarri nahi du; hau da, hitzek forma har dezatela.





Mamadou Dia (Hahatay Son Risas de Gandiol)

Eraikuntza, garapenerako tresna gisa. Eta metafora bat, eremuak fisikoki eraikitzeaz ari baikara, baina baita pertsonak, gizateria eraikitzeaz ere.

Hahatayko lanaren gakoak:

- Emakumeei laguntzea.
- Lekua eta denbora partekatuz ikastea.
- Utopia aktibo bati jarraitzea: beste mundu bat eraikitzea.

Konpromiso politikoa dago (eta gizakien artekoa) utopia honetara heltzeko: gazteria berdintasunez aurkitu eta partekatu ahal izatea. Senegalgo kulturean, *ataya* unea deritzona erabiltzen dute horretarako (tea prestatzen eta edaten duten unea). Elkarrekin ematen duten unea izaten da, gizarteratzeko modurik errazena.

Milioika topaketaren emaitza da giza zibilizazioa. Topaketak geldiarazteak gizateria pobretzea dakar.

Bidaia egin behar dute munduko gazteek. Gandiol bisitatzeko gonbita luzatzen du Hahatay begirada horren bitartez, baina beste hau ere aldarrikatzen du: Gandioletik abiaraztea bidaia.

Globalak eta amankomunak dira desafioak gaur egun. Lankidetzaz, berriz, funtsezko elementua da bidegabekeria sozialei aurre egiteko.

Berreraikitzeko plan pilotu bat garatzeak berekin dakar gazteak eta emakumeak arazo gisa ez ikustea, aukera modura baizik.

Esperientzia komunitarioen *Def'art jotna* laborategia sortu da, Afrikako auto-realizazio komunitarioko proiektua.

Garapen komunitarioaren kontzeptuari kontrajarria da termino hori. Eta go-goeta egin beharra dago terminoei buruz, garapena hitza bera ere zera baita,



funtsean: «Mendebaldeari kopiatzea». Zalantzan jarri behar dira Mendebaldeko aurrerapenak; ikuspegi kritikoa eta konstruktiboa behar da. Plastikoaren gehiegizko ekoizpena, kutsadura... Eredu hori kopiatzen badugu, akabo gure Lurra.

Kultura da ororen oinarria eta abiapuntua. Komunikazioa ere ezinbesteko tresna du aldaketak. Horretarako, komunitatearekiko harremana behar da. Prozesu horretan, gazteria da komunitatearen aitzindaria, proiektuaren enbaxadorea.

Hona hemen Afrikako autorrealizazio komunitarioko *Def'art jotna* laborategian martxan diren proiektuak:

BAN AK SUF

Emakumez osatutako bioeraikuntzako taldea. Ban (harea) ak Suf (lurra). Maskorak eta lastoa ere erabiltzen dira eraikuntzako material gisa.

Hiri bat, auzo bat, industriagune bat eraikitzea da xedea. Beti dugu lehentasunen bat, baina ez da gizateria, ez dira gizakiak; beraz, gizakiak eraikitzea erabakitzen dugu, hobeto bizitzeko.

AMINATA KULTURA-ETXEA

Topagune gisa sortu zen, batez ere Euskal Herriarekikoa. Xedea: topaketa abiapuntu harturik, gogoeta egitea kulturaz eta pertsonen zein prozesuen aberasteaz.

Lankidetzakoa izan zen eraikuntza.

FESS PRODUCTION (ikusgai bihurtzea)

Emakumez osatutako ikus-entzunezkoen ekoiztetxea.

Gandiola erakusteko modu berri hori hobesten du: emakumeak ahalduntzea, begirada hori helaraz dezaten. Gandiolen, handiagoa da emakumeen kopurua gizonena baino, emigrazioa dela eta. Laguntza handia ematen zaio emakumeen ikus-entzunezkoei buruzko trebakuntzari.

DEKANDOO

Egoitza artistikoa. Eraikuntza-lanetan emakumeek esku hartu zuten lehenbiziko eremua dugu. Lastoa, buztina, beira eta esterak erabili zituzten horretarako, eta inguruko elementuak birziklatu.

SUNUTOL

Baratze agroekologikoa.

DEFARAT

Plastikoaren birziklatzea.



GEM SUNU BOPP

Irrati komunitarioa, komunitatearen eraikuntza-prozesuari laguntzen diona. Automobil-pneumatikoz eraikitako eremua.

MENENEK

Ardiak, ahuntzak eta abar hazteko landetxea.

KEERU JIGGEN ÑI

Emakumeen sustapena. Helburuak: mugak haustea, kezkei aurre egitea. Arkitektura bere gisara interpretatu du taldeak eraikuntza-lanetan.

NITÉ

Gandioletik arropa sustatzeko eraikitako ehungintzako eremua. Elementu naturalez tindatzen dituzte oihalak, inguruko baliabideak erabiliz, tokiko garapena bultzatzeko.

BANT AK WEÑ

Altzari-fabrikazioa.

TABAX NITÉ ACADEMIA

Elementu nagusiak: jakintza, lidergoa, tresnak.

Jende asko joaten da hara trebatzera; besteak beste, bertako eta nazioarteko 60 arkitektura-ikasle joan ziren bisitari.

Martxan da eremu horiek guztiak jakintza- eta esperientzia-akademia bihurtzeko prozesua.

Gai hauei buruzko prestakuntza eskainiko da: kultura eta komunikazioa, bizikidetza, ezagutzak eta jakintzak, agroekologia, diseinua eta ikus-entzunezkoak, bioeraikuntza, zurgintza.

TABAX NITÉ HUB

Ekintzailetzaren eta aukeren ekosistema. Lidergoari eta berrikuntzari buruzko trebakuntza. Ikasketak amaitzean laguntza eskaintzen zaie gazteei, zenbait aloretan ekimenak bultzatzen.

Inguruan dituzten baliabideetatik bizi daitezke komunitateak, baina horretarako ikusi egin behar dira eskuragarri dauden aukerak. Hurbilena daukaguna ikustea eragozten digu mundu birtualak.

Diskurtso iradokitzailea. Nola iritsi jendearengana pentsaera kritikoa garatzeko?

Jendartean biziz. Gaztea nintzela, ezin nuela ezer egin esaten zidaten; nik, berriz, gazteok gizartearen arazoei aurre egiteko gai ginela frogatu nahi izan nuen.

Gazte engaiatu asko dago, eta entzun egin behar ditugu. Lagungarri da, halaber, herrikoa izatea eta herrian harrotasunez bizitzea. Herritik iritsi behar zaio inpirazioa hiriari. Ez naiz beste batzuentzat egiten ari proiektua: GURE proiektua da, gure komunitatearena, bertako eta nazio mailako ekimen ugariren babesa jasotzen duena. Erantzunak ematearen ardura partekatzen duten zenbait saretako kide izatea ere lagungarri da. Prozesuak sustatu behar dira aldaketa eragiteko, jendeari hitz egiteko aukera eman eta zubi-lanak egin.

Zorionak zure herrialdera itzultzeagatik! «Arimak berregitea» esaera kubatarrak Tabax Nitären kontzeptua gogorarazten dit (pertsonek eraikitzea).

Senegalen lan egin duen zirujau bat mintzo da, lankidetzat bat proposatzeko. Helburua: emigratio indiskriminatua saihestea; aukerak eta baliabideak sortzea Senegalen.

12. LANBIDE-HEZIKETA ETA LANKIDETZA

CFIP TARTANGA LHII

(Markel Andia eta Inhar Lozano)



Inhar Lozano (Tartanga LHII), Markel Andia (Tartanga LHI)

Bi irakasle eta bi ikasle joan dira Senegalera, eta Gandiolen eta Hahatayn izan dute lehenbiziko harremana Afrikarekiko nazioarteko lankidetzarekin.

Bidaia horri esker, zenbait ezagutza tekniko jarri dira Hahatyren zerbitzura irratien bidez; Gandiolen, berriz, telebista bat jarri dute martxan.

Telebista-proiektu horretan euren hondar-alea jarri nahian zebiltzan. Alde bate-tik, alor teknikoak jorratu zituzten; bestetik, berriz, aurrerago jarraipena izango zuten beste trebakuntza-alor batzuk.



Xedea: bideoak eta soinua nola grabatu irakastea gazteei, eta *streaming*eko lanak egitea. Zer baliabide zituzten eskura aztertu ondoren erabaki zuten zer irakatsi.

Adibide praktikoak: bideoklip baten edizioa.

Eusko Jaurilaritzaren finantzaketa jaso zuten; Tartanga LHIIk, berriz, ekipamendua laga zien.

Ikasleen trebakuntza-mailara egokitu ziren ezagutzak. Irakasleek, berriz, ikasleei zer interesatzen zitzaien aztertu zuten lehenbizi, haien beharretara moldatzeko. Ahalik eta praktikoek izaten ziren eskolak, ikasleek materialen funtzionamendua ezagut zezaten.

Soinua eta irudia jorratu zituzten, eta jarduera praktiko gisa, zuzenean eman zuten kontzertu bat, hiru asteko trebakuntza eta gero. Irakasleek ez zuten parte hartu azken ekitaldiaren muntaketan, Gandioleko gazteek euren kabuz egin baitzuten lan guztia.

Bideoklip bat ere grabatu zuten, bertako artistekin.

Diseinu grafikoko proiektu bat ere egin zuten: Hahatayk egiten duen guztiaren nortasun-eskuburu bat. Martxan jarraitzen du proiektu horrek.

Jendearengandik asko ikasi dutela diote, aurreikuspenetatik harago jotzen dela jendearen konpromisoak.

Lanbide-heziketarekin lotura estua du **Tabax Nité** proiektuak; hori dela eta, instalazioak eta baliabideak behar ditu.

Lan egiteko, jarduteko modu berriak proposatzen ditu proiektuak. Honetan oinarritzen da trebakuntza: dakien jendea kontratatzen da ez dakien jendea trebatu eta presta dezan. Horrela garatzen dira proiektuak. Esate baterako: ikasten ari dira eta, aldi berean, ezagutzak aplikatzen eta praktikan jartzen.

Proiektu errealak egiteari ekiten diote, zuzen-zuzenean. «Eginez ikastea». Modako kontzeptu hori ari dira aplikatzen, lagungarria baita proiektuak barneratzeko. Hori da, hain zuzen ere, Hahatayko ikaskuntzaren oinarria: eginez ikastea.

Inspirazio-iturri egokia horrelako ikaskuntza-sistemetarako. Proiektu errealak dira hango ikasleek egiten dituztenak.

Zer egin ikasleek sortzen dituzten proiektuak tiradera batean gera ez daitezen, ahaztuta? Badago aukera bertako produktuak sortzeko, komunitateari onurak dakarzkietenak gainera. Hemen, komunitateak ez du jasotzen gure ikasleen proiektuen onurarik. Saiatu beharra dago aurrera egiteko.

Han, ikastetxean dago komunitatea. Komunitateak, berriz, ikastetxean egiten den guztiaren onura jasotzen du. Hemengo trebakuntza-sistema dela eta, disko



gogor batean geratzen dira proiektuak. Aldiz, ikasleek proiektu errealean hartzen badute parte, handiagoa izango da haien engaiamendua.

Homologatuta dago gure hezkuntza-sistema; Hahatayn, berriz, homologazioa lortzearren ari dira saiatzen. Izan ere, trebakuntza-ziklo bat hezkuntza-sisteman txertatzen bada, arazo eta burokrazia ugari agertu ohi dira.

Han, berriz, bikainak dira emaitzak, homologaziorik ez duten arren.

Eskaintzen duten trebakuntza noizbait homologatua izango dela, amets hori dute. Eta gauzatuko delakoan daude.

Politak izan ziren esperientziak, baina kulturen arteko talkarik ere egon zen. Aberasgarria izan zen bidaia, eta asko ikasi zuten hango kulturaz, erlijioaz, jana-riaz, klimaz, tradizioez... Hainbeste zegoen jendearengandik ikasteko...

Eta etorkizunean, zer?

Proiektu zabalago batean kokatzen den hondar-aletxo izan da haien lana, eta jendaurrera azaldu gabe jardun direnen lana eskertu nahi dute.

Beste bidaia bat egitea aurreikusita zegoen, baina ezin, finantzaketaren murrizketa zela eta; dena den, saiatuko dira Gandioletik bi lagun gutxienik etor daitezen.

Oso ahalsua da han KOMUNITATEAREN kontzeptua, pisu handia du. Hemen, indibidualistagoak gara.

Proiektuei dagokienez, honek harritu ditu: bi asteko trebakuntza jaso ondoren, ikasitakoa praktikan jartzen eta erabiltzen ari direla. Hemen, askoz ere baliabide eta trebakuntza-saio gehiago jaso arren, nekez hezurmamitzen dira proiektuak. Ikasturte berrian, ikuspegi praktikoagoa erabili nahi dute, proiektu errealak mar-txan jartzeko.

Kontzeptu zabala da KOMUNITATEA. Besteak beste, hau esan nahi du: egunero 12 lagunek elkarrekin gosaltzen dutela, eta den-dena partekatzen. Senegalen, oso sendoa da komunitate-sentimendua.

Hemen, baliabide material ugari dago. Han, berriz, baliabide gutxi, baina gogo biziz jarduten dira. Hona ekarri behar dugu ideia hori; alegia, material gutxiarekin asko egin daitekeela. Beharrezkoena ez da materiala, gogoia eta ekimena baizik.

KCD ONGDk hau gogorarazten die: bidaia honetatik itzultzean, ingurunea eralda-tzen duten eragileak izango direla hemen.

Beraz, denbora eta lekua partekatzen jarraitzeko ahal den guztia egin behar da. Hautsi egin behar dira estereotipoak, mugak eraitsi. Gainerako guztia, berriz, aitzakia hutsak dira (trebakuntza, jarduerak...). Izan ere, hau da helburua: gazteok elkarren ondoan esertzea, elkar ikustea, elkar ezagutzea.

Pertsonen arteko bategitea bultzatu behar du lankidetzak, arrazakeriari aurre egiteko.



13. ONDORIOAK

KCD ONGD

(Juan Carlos Vázquez)

Euskal lankidetzaren sorrerak lotura estua du Nikaraguako 1979ko iraultzarekin, zeinak konpromiso politiko handiko mugimendu internazionalista eragin baitzuen Euskal Herrian.

1980ko hamarkadaren amaieran, **garapenerako lankidetz**a hasi ziren bultzatzen **EAEko erakundeak**; hori zela eta, **elkartasun internazionalistako** mugimenduaren zati batek **bat egin zuen lankidetz**a-mota horrekin, eta zenbait proiektu garatu zituen. Mundu konplexua zen, teknizismoz eta burokraziaz be-tea, eta erakundeekiko elkarriketarik eza izaten zen nagusi.

EAEn **beti hitz egin izan da** ekonomia-alorreko **ekintzaileez**, baina garai hartan gizarte-ekintzaile ugari ere agertu ziren.

Funtzionatu ahal izateko, **egitura berriak, koadro teknikoak eta kaudimen ekonomikoa** behar izan ziren, bai hemen, bai proiektuak gauzatzen ziren herrialdetan. **Erakundeekin hitz egiten** ikasi behar izan zuten GKE-ek, elkarrekiko mesfidantza baitzen nagusi haien eta administrazioen arteko harremanetan.

Harrezkero, 34 urte igaro dira EAEko GGKE-ek eta erakundeek **elkarlanari ekin** ziotenetik, eta proiektu asko gauzatu dira. Denetarik egon da, **arrakastak eta porrotak**; hori dela eta, **esperientzia zabala** metatu da, eta aprobetxatu egin behar da.

Gaur egun estuagoa da GGKE-en eta erakundeen arteko harremana, eta hasieran baino handiagoa haren eragina: espezializazioa areagotu egin da eta —oso garrantzitsua— pixkanaka aurrera egin du gizartea eraldatzeko hezkuntzaren kontzeptuak.

Burokraziaren zama gainetik kendu eta, aldi berean, koherentzia politikoa areagotu egin behar luke lankidetzak. Horretarako, alde batera utzi behar litzateke GGKEok izan dezakegun eragin politikoa. Argi dagoena zera da, **eraldaketa globalerako lankidetzak elkartasunari oso loturik jarraitzen duela.**

Hauek dira **GGKE-en filosofiaren eta lanaren ezaugarri nagusiak**: jasangarritasuna, genero-berdintasuna, bertakoa-globala ikuspegia; ikuspegi etnozentrikoak, heteroarautzaileak eta antropozentrikoak gaingintzeko ahalegina, eta giza garapen zuzena eta jasangarria lortzeko alternatibak bilatzea.

Desafio handiak ditu lankidetzak:

- GGKE-en arteko lehia (215 erakunde daude EAEn).
- Profil politikoak baino gehiago, teknikoak eta profesionalak behar dira.
- Lanaren sakabanaketa.
- Higadura eta ezegonkortasuna (urteroko deialdiak).
- Belaunaldien arteko erreleboa.

Erronka handiak genituen EAEko GGKEok sortu ginenean, eta globalizazioak areagotu egin ditu:

sexu-indarkeriako 400.000 ekintza, urtean, Espainiako estatuan; horietatik, % 2 bakarrik detektatzen dira. Munduko Bankuaren arabera, 2.400 bat milioi emakume ez dituzte gizonen eskubide berak. AEBko senatuak 50 urte atzera eragin dio abortatzeko eskubideari. Kolonbian, 900 lider eta giza eskubideen defendatzaile erail dituzte 2016ko bake-hitzarmenaz geroztik. Ordezkarri politiko bat hiltzen dutenean, haren komunitate osoari egiten diote eraso. Bi mila lagun baino gehiago hil ziren Mediterraneoan 2021ean; bestalde, 70 herrialdetan jazarzen dituzte LGBTQ+ komunitateko kideak. Zenbait gobernu —Israelgoa, esate baterako— ziberespioitzaren industriad baliatzen da diplomazian, nazioartean bere eragina handitzeko; bestalde, areagotu egin dira desberdintasunak diru-sarrereri eta aberastasunari dagokienez; Mexikon, adibidez, pobrezian bizi dira herritarren ia erdiak; ugaltzen ari dira gorroto-mezuak, geroz eta larriagoa da klimaren krisia... Gerrek ez dute etenik, eta gastu militarrek gora egin du ondoko ondoko zazpigarren urtez.

Horra desafioetako batzuk; gutxi, baina nahikoa gure haserrea eta ezinegona eragiteko, **zerbait egitea erabakitze**ko.

Azken 14 urteotan, asaldura oso larriak jasan ditu munduak:

- 2008ko **finantza-krisi** orokorra.
- **Trumpen agintaldia**: populismoa sustatu zuen Trumpek, eta nazioarteko hitzarmen guztiak mespretxatu.
- **Txinaren protagonismo geroz eta nabarmenagoa**: garapen neoliberaletako ereduaren krisiaz baliatu da Txina.
- **Koronabirusa**: 15 milioi hildako eragin ditu endemia horrek, eta pobrezia eta desberdintasunak areagotu. Beste gauza bat ere erakutsi zigun gaitasun horrek: zer gertatzen den politika neoliberaletan osasun-sistema publikoa suntsitzen badute —edo sistemarik ez badago— eta pandemia bat etortzen bada. Nabarmendu zuen, halaber, gizarte guztietan emakumeak arduratzen direla zaintza-lanez.
- **Lurra salbatzeko zientzialariek jo duten alerta**, gobernuak ezer gutxi egiten dutela ikusirik.

- **Laugarren Iraultza Industrialeko teknologia berriak oker erabiltzeak lekartzakeen arriskuak** eta haiek etikoki erabiltzearen garrantzia.
- Errusiak Ukraina inbaditu izana, NATOren hedatzea, blokeen arteko talka.

2015ean, 2030 Agenda onartu zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak. Agenda-ren xedea: mundu zuzenago eta jasangarriago bat eraikitzea. Helburu hori lortzeko, «Pertsonen, Lurraren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat antolatu zen. Mundu osoan bakea eta justizia sendotzea ere xede ditu planak».

Guztira 139 herrialdek sinatu zuten ebazpena, non «Garapen Jasangarriko Helburuak (GJH)» deritzen helburu berriak ageri baitira.

Mundu egonkorrago batean sortu ginen EAEko GGKEak: polikiago gertatzen ziren aldaketak, eta dezenteko indarra zuten taldeek eta komunitateak.

1990eko hamarkadan, mundu digitala iristean, **egoera likido batean** murgildu ginen, **Bauman soziologoak** zioenez. Hona zer ekarri zigun mundu likido hark: **balio oso sendorik gabeko** Estatua. «**Likidoaren**» **jariakortasunaren abiadurak, nahasteak eta kontsumo neurrigabeak, berriz, nabarmen ahuldu ditu harreman sozialak eta gizakion arteko loturak.**

Pandemiak, bestalde, gas-egoerara eraman gaitu, **non gizakiok indar txikia baitugu elkar erakartzeko: etengabeko espantsioan gabiltza, etengabeko bilaketan, etengabe atsekabeturik... Zaila da, beraz, gizakiok elkarrekin bat egitea.**

Ezkutatu egiten dira gure banakako ahaleginak. Arriskua, berriz, hau da: zerbaitek edo norbaitek energia hori leherraraztea. Energia hori ongi bideratzen badugu, mezua biderkatu egin dezakegu. Aldaketarako erregaia izan behar du.

Urak gainezka jartzeko falta zen tanta ere izan liteke krisi berri hau, aldaketa sakonei ekiteko eta garapenerako adostasun orokor berri bat sortzeko inflexio-puntua, mundu guztiarentzat zentzuzko konponbideak dakartzana. Horretarako, **aldaketarako borondatea sustatu** behar da, eta **egungo eredu global eta bideraezinaren ordezk**o proposamen berriak eragingo dituen **aurrerapen-bide berri bat.**

Gobernantza orokor berri bat ere eraiki genezake krisi hau dela medio: **Nazio Batuen Erakunde** eraberritu bat, adibidez, herrialde boteretsuenen interes geopolitiko eta estrategikoetatik aparte egongo dena. **Oso lagungarria litza-teke gobernantza global hori GJHak betearazteko eta etorkizunari baikortasun eta ilusio handiagoz begiratzeko.**

Errealitateari tinko atxikitzen zaizkion erresilientzia eta lankidetzat elikatu behar dira, eta alde batera utzi boluntarismoak eta gure ahalmenen gainetik dauden amets lortezinak. Zentzua, errealismoa eta pragmatismoa behar ditu gizakion aurrerabideak.

ERIKA (Burgos) – Eskerrik asko! «Txiki-txikia sentitzen nintzen, kontatzeko hainbeste gauza zituen horrenbeste jende ikusirik. Mila esker zuen esperientziak eta bizipenak partekatzea; orain, besteok ere geurea dugu ezagutza hori».

- 49 -



na. Gizaterian itxaropena izatea oso zaila den egoera horietan, oso garrantzitsua da guk hor jarraitzea, egoskorra izatea. Elkar ikusten jarraituko ahal dugu...».

YANIRA (El Salvador) – «Bidegabekeriek elkartzen gaituzte, eta gauzak aldatzeko itxaropenak, gauza onak egitekoak. Hobetuz egiten dugu aurrera. Era askotako lanak egin behar izaten ditugu, herrialde bakoitzeko egoera nolakoa den, eta horrek eramaten nau jasangarritasuna zalantzan jartzera. Azkarrak izan behar dugu, nahitaez, egiten dugun lanak jarraipena izan dezan. Eskerrik asko KCD ONGDri, bai aukera hau eskaintzeagatik, bai elkarrengandik ikasteko balio diguten topaketa hauek antolatzeagatik. Segi amets egiten, eta ideiak hezurmamitzen».

NETO (El Salvador)– «Eskerrik asko topaketa hau antolatzeagatik, elkar ezagutzeko eta zenbait gauza partekatzeko aukera eman baitigu. Desafio handia da baterako sorkuntza. Oso lagungarria izan zitzaidan 2019ko topaketa, orduan hasi bainintzen pentsatzen zer gehiago egin nezakeen. Beste batzuk zenbait gauza egiten ikusteak bultzatu gintuen fikziozko dokumental bat egitera. Formatu komertzialetan murgildu ginen, bai, baina edukiak kontrolatuz. Garrantzitsua izan da lankidetzaren laguntza; hura gabe, ez genukeen helburua lortuko. Erakundeekiko gorabeherak (gobernuarekikoak...), berriz, beste leku batzuetan ere gertatzen dira. Plazer handia izan da jarduera presentzialetara itzultzea. Nirekin daramat ikasi dudak guztia, eta zenbait erronka berri».

PERLA (Kuba) – «Hirugarren Munduan» dago Kuba, baina inori ere ez diote ko-bratu COVID-19aren txertoa, eta ia herritar guztiak txertatu dira. Inoren laguntzarik gabe ari gara aurrera egiten. Afrikako kontinentearekin zorretan geundela erakutsi zigun komandanteak. Hona zer erakutsi ziguten: ez dugu ematen sobera duguna, ez baitaigu ezer sobera geratzen; daukaguna partekatzen dugu. Mila esker topaketa zoragarri honengatik».

MARILYN (Kuba) – «Eskerrik asko KCD ONGDko taldeari. Hain urruti eta, aldi berean, hain hurbil beti. Hamar urteko lankidetzak jada... Oso gaizki banatuta dago mundua. Talentua sustatu behar dugu. Kuban, oinarritzko gauzak eskuratzeko borrokatzen gara egunero. Egoskorkeria dugu ezaugarri eta bidaide».

MAMADOU (Senegal) – «Mila esker KCD ONGDri aukera honengatik. Inspirazioz beterik alde egingo dut hemendik, etorri nintzen baino handiago. Itxaropenez beterik joango naiz, inguratzen gaituen oro grisa den arren. Ez dugu galdu behar hunkitzeko gaitasuna. Zorte handia izan dut: kalean bizi izan naiz, enpresa bateko arduradun jardun, eta ikusi dut tituluen atzean ezkutatzen den jendearen beldurra. Horrela ikusten dugu barruan daramagun indarra; ez dugu pentsatu behar txikiak garela: egiten dugun horretatik indarra atera, eta harro sentitu behar dugu. Zoriona eta hunkidura sentitu behar ditugu. Algara esan nahi du «Hahatay»-k. Maitasuna eta poza dira nire ekarpenaren iturriak. Ilusioz jardun behar dugu, proposamenak egin eta tinko aldarrikatu. Handira jokatu behar dugu. Proiektuetatik jaso behar dugu inspirazioa, eta mundua inspiratu. Kemenez eta indarrez beterik itzuliko naiz topaketa honetatik, inoiz baino indartsuago, hainbeste une gogor igaro ondoren (jendea, politikariak engaiatu

behar izan ditugu...). Aurrera jarraitzeko adorea ematen dit horrek. Gehiagoren bila goaz».

JUAN CARLOS (Bilbo)- «Oso jende praktikoa gara KCD ONGDkook. Izan ere, munduaren Iparraldean ere badago Hegoalde global bat. Eta denok dugu zer ikasia besteengandik; hori da elkarriketa».

15. CLOWNDORIOAK

VIRGINIA IMAZEN ESKUTIK



Pauxa pailazoa (Virginia Imaz, Oihulari Clown)

Susmagarria da norbait ondo egotea gaizki dagoen mundu batean.

Konspiratu egin behar dugu.

Ekintzara jotzeko, konpromisoa hartu behar da.

BAI, aldaketa NAHI DUGU.

Sortuz eutsi. Sistema aldatu.

Zer gertatuko litzateke egiten ari ginena egiteari utziko bagenio? Badago itxaropena izateko arrazoirik.

Aurka dugu testuingurua, baina, ilunpe honetan, bidea argizatzen duen itsasargia izan daiteke gutako bakoitza.

Jende txiki asko gauza txikiak egiten eta, nahi gabe, aldatu egingo diegu sistema.

Bazterrekoen istorioak ere garrantzitsuak dira, izan ere.





Beurko Viejo 3 Pabellón 38 - Of. 12

48902 - Barakaldo - Bizkaia

94 602 46 68

info@kcd-ongd.org

www.kcd-ongd.org

